# - L A M I Ñ A K -

## - Lamiñak Sanperen -

### Utsaleko zubipian -

Orain bereun-irureun urte, ba-ei eben Lamiñak Sanperen, Utzaleko zubipean bizi-leku bat. Begiratu ta begiratu ogiñaren be, zulo oretako ezeren bari iñork bere ezin jakin al ei-eban baña.

Bein batez, oraitiño be, Lamin areitako bat il-zorian ei-zan. Aren lagunak ba-ekien, zuzen jakin be, arenak egin ebana. Zoritxarez, baña, ezin il eitekean. Guretariko batek, Lamina ez zan batek, a ikusi ta bere auréan, otoirik laburena baño ezpada be, il eitean, esan egin bear eban.

"Gaazetxean" ezagun bat eben eta, laminetariko batek "Gaazetxera" jo eban.

—Aren, gure bizi-lekuraño etoriko ba-ziña, gure Lamiñetariko bat guztiz txarto dago'ta. Zuk ikusi ta otoi labur bat arentzat esan artean, ez dau azken arnasarik emongo. Sari galanta izango dozu: berogetamar laurleko ta beste pitxi ederen bat bere bai gañera.

"Gaazetxeko" andreak Lamiñarekin juatea erabagiten dau. Berogetamar laurleko ez ziran ba, orduan edozelan irabazten.

Zeozer gertatu-enean bere...

Utzaleko zubi ondora ziran eta ona Lamiñak andreari iñotsana.

-Gure etxetik urtetekoan zaratarik entzungo ba-zendu !aren! atzera ez begiratu. Zoaz beti aurera, bide ~~tzeka juan baña~~, bestela ~~zeuk~~ zuk oartu be egiteka galdu egingo dozu saria.

-Ondo da. Ez dot, ez, atzera begiratuko. Utzaleko zubira dira ba. Lamin-etxera eltzeko erekea igaro bear, ta makil berezi bategaz Laminak !"Kaxk"! joten dau ura ta beingoan erdibitu egin zan ura. Biak igaro ostean, Lamiñak !"Kaxk"! jo eban bariro be makilagaz eta beriala lenere zan ura.

Sartzen da etxe barura gure andrea, eta il-agian zan Lamiñaren auren otoia esan eta Kanporuntz egin eban.

Lamiñak ostera, gure andrea ezer artu barik ez eben biáldu nai atzera etxera. Aokada bat beintzat artu bear ebala. Jaten ondo damotso. Orez gañera berogetamar laurleko be, bai urezko diru-ontzi baten. Poz-pozik etxerako ustean zan gure andrea. Olako batean zarata edo entzunda, begiratu dau atzera ta !agur!, bera konturatu bere egiteka urezko diru-ontzia galdu dau.

Ur ondora ziranean, len lez artzen dau Lamiñak makila ta "Kaxk"... Oraingoan, baña, urik ez da erdibitu.

Bariro be "Kaxk", alperik baña. Arezkero ba-ekian Lamiñak urik zegaitik ez zan erdibitzen. Oraindiño, baña, andreari esaten ez zan ausartzen. Barien-bariz bere joten dau ura makilagaz. Lengo senean ba a. (Ura, baña, lengo senean)

Orduan Lamiñak: - Konturatu barik edo artuta, gure gauzaren bat ez aldaukazu?- diñotso andreari.

Andreak gorde naita - Ez dot uste, Andre-Lamin,- dirautso.- !Ořatz bat bere ez dot artu nik!

Patrikada guztiak ikusten dauz eta -Ez, ezer aurkitzen ba nik- diñotso bařiro bere.

-Zer artu dozun ezpadiñostazu ezin erdibitu daiket urik. !Eta ementxe geratuko gara!

Orduan andreak; - Ogi zati bat artu dot, ba, ta zapian batuta daukat. Besterik ez. Zueneko ogi zuria etxekoei erakustekotan... (Eduřa bera baño be, zuriagoa ei zan).

-Ori edozeñeri jazoten jakona da. Gure etxetik ezin ezer eroan daikezu, baña. Ekatzu, ba. ogi koskořoi. Gure gauzarik, egundo iñok ez dau ikusi bear-ta.

Gure andreak biurtzen dautso ogia ta makilagaz "Kaxk" jo ordukoxe erdibitu da ura. Lamiña be, orduantxe eskutatu zan.

"Gaazetxeko" atso eřukařiak, jo ona ta jo ara sari galanta irabazi eban. Etxera uała beřogetamar lauřekoak bere patrikadan urtu egin ei yakozan, baña.

Ona omen Lamiñak zelakoak diran, zelan eta nun bizi diran, oraindiño zergaitik ez dakigun, zuzen-zuzen.

II

Lamiñea ta Atsoa.

Anđra-gizon batzuk bizi ei ziran etxe baten; gazte gaztiak ez ei ziran. Gizona goizago oeratzen zan. Andrea, berandu arte, "firu" ta "firu" iruten. Gauoro baña, eta beti sasoi batean, alako Andrazko ařotz bat jausten ei jakon ke-zulotik-bera Andra eřukařiari.

Apari koxkořik emoteka ezelan be etxetik ezin atera eitean. Lamin -buřunba ta "txitxi ta papa, bustia?" betiko itauna, urdai piska bat eřeten asi orduko egiten eutsan.

Olantxe igaro ebazan edozenbat aste. Guztiz ikaratuta gizonari mistik esaten ez zan ausartzen Andra gaxoa; Lamiñea olako baten aspertuko zala uste eban.

Bitartean, gau batez, ametsetan lez, bere andreak nor-edo-norekin berbetan ziardua la iruditu yakon gizonari.

Andra eřukařia oeratu zanean -"esan egidazu norbaitekin berbetan egon zarean ala ez-" itandu eutson gizonak.

-Bai-

-Nor zenduan, ba, oŕ?

-Neuk, be, ez dakit nor zan. Aspaldiko egunotan gauoro agertzen yat momoŕo antzeko ori. Eta apaltzen asi orduko betiko galdera auxe egiten daust: "Txitxi ta papa, papa bustia?"

-Eta emon egiten dautsozu?

-Emon bearko. Zer egin, ba?

-Ondo da. Biaŕ gauean zure ordez neu egongo naz. Ordu oŕetan datoŕena, ezin izan daike parte onekoa. Sorgin ala Lamiñetarikoen bat dan biaŕ ikusiko degu. Aliŕ eta egokien jantziko ditut zure samako zapia ta burukoa. Beste egunetan lez zeu zaitituala uste izango dau.

x. x. x.

Biaramonez (ganez), esan ebenez, andrea juan zan oera ta gizona geratu zan sutondoan iruten !jo ta ke!

Zapaŕada aundi bat entzun eban gizonak beingoan. Kebidean-bera jatxi ta ondo-ondoan geratu yakon betiko aŕotzak (edo ezezagunoi) Eta berialaxe betiko eskabidea: Txitxi ta papa, papa bustia" egiten dautse.

Gure gizonak ez-entzun egiten dautso (baña), ta eguhdo baño zoliago diardu iruten. Eta Lamiñak "zeñen zoli diñarduzu lanean" dirautso.

-Bai, atzo "frin-frin", "firun-firun", gaur "fran-fran", "furdulu -furdulu". Eta zearka aŕotz (edo eze zagunai) begiratuaz iruten jaŕaitu eban gure iruleak. Lamiñen bat izango zala iduritu yakon, eta sekulo kuetan lasteŕ uxatuko aut emendik, (ba iñoan bere kolkorako) uxatu bear ebala.

Lamiñak, be, zer-edo-zer oartu eban eta itaun onetxek egiten asi zan: "Zu ez zara bestetan emen egoten dana. (Beste bateren itxurea dozu.) Zein da zure izena?

-"Ni-neu".

-Ni-neu?... Eta "txitxi ta papa, papa bustia?"

~~An dago gure gizona sutondoan, koipez gañezka dagoan sartañak edo paderak noz irakingo.~~

Lamiñak pozaren-pozez eskuak igurtzi ta auxe diño: "Txitxi ta papa, papa bustia?".

Alako batez, koipea urtu ta eŕezala (gizonari) begitandu yakonean. "pla", jaurti eutson (Lamiñari ~~bere bien ordetara~~).

Benealaxe iges egin eban Lamiñeak txilioka kebidean gora.

Kanpora zanean uluaren-uluz Lamin-lagun danak bereganatu ebazan.

Eskuak ~~begietan~~ ar̃pegian ~~ipiñita~~ ebazala etengabeko gar̃axika ~~zan~~ iñarduan. Zer esan nai eban be ezin ulertu eutsen lagunak.

-Zer dok ~~lagun~~ be?. Zer dok? Nok er̃e au edu or̃etan?

-"Ni-neuk"... 'Ni-neuk".

-~~Zure~~ I burua euk er̃e ba dok nok yaukak er̃urik? Zertara ator̃ guregana?

Eta Lamiñ ~~ak bakotxa bere lokura~~ gustiak berealaxe ayeyatu ziran ~~beingoan~~ toki gustietara gau ilun atan.

III

Dominiztikun

Beste batez, jayo orduko esknetan ebezelba galtzen ei-yakezen ume guztiak etxe baten. Lau edo bost izan eta lau edo bostak galdu ei-yakoezen. Laster jaioko yakoen beste umeari zer egingo ete eutsen asmau ezinda, estu ta lar̃i ziran. Gustiak kezkati ziralarik, aingerua baxen ume polita jayo yakoen. Eta aren ume polita galduko yakoena bururatzea be....

Negar̃ez ziran danak, eta negar̃ez egozala, bar̃iak jakiteko asmoz auzoko gizon zar-zar bat etxeratu yakoen.

Gustiak negar̃ez ikusita, ez-bear̃en bat edo ete-eben galdetu eutsoen gizontxoak.

-Ez, ez. Umetxu bat jaio yaku, baña...

-Zer baña? Zer ~~dala-ta negar̃ez?~~ es bildur zarie, or̃elan negar̃ez urtuteko?

-Oraindiño iñori, ~~be,~~ ez dautsogu ~~ezer esan~~ esan ma. Zuri esanatea, be, alper̃ik izango dala. Jakin nai dozun ezkero esan egingo dautzugu ba' jazoten yakuna. Orain, arteko umeak, oartu, be, egiteka, galdu izan yakuz. Eta orain..... ume onek, be, beronen aldia noz izango ete daben... lar̃i ~~gaituzu.~~ gaukozuz. — Vurte dogu.

-Ori ~~bai~~ jazoten yatzuena, er̃ukar̃ioi? !Jakin izan ba 'neu, jakin! Zuzenduko dogu, zuzenduko dogu gaitz ori. Ta nok artzen daben besoetan ume ori?

!Olantxe! Eta or̃elantxe euki ~~nik esan arte~~ aingerutxo gaixuoi. Oztu edo egin zan ~~kontizu~~ altzoan eta "~~zirtz~~" egin eban. ~~"Doministikun ume" dirautso orduan~~ Gizon zar̃ak bariz, usin berealaxe dirautso: "Dominiztikun ume ..."

Diadar̃ zital bat entzun eben orduan ate ostetik:

"Madarikatua gauza ori irakatsi dautzuna! Madarikatua umea be"!

Eta ori esan ondoren, Lamiña itsusi aundi bat burundadaka juan zan kebidetik gora.

Gizon zar̃ ari eskerak bizi da ar̃ezkero ume a. Eta-ez al-da ar̃itzeko?

# — LAMIÑAK —

## Lamiñak Sanperen.Utsaleko zubipean

Orain beŕeun-irureun urte,ba-ei eben lamiñak Sanperen,Utsaleko zubipean bizi-leku bat.
Begira ta begira egon aŕen be,baña,zulo aretako ezeren baŕi iñork bere ezin jakin al ei-eban.

Bein batez, oŕaitiño,lamin areitako bat il-zorian ei-zan. Ba'ekien beraren lagunak,eta zuzen jakin be,arenak egin ebana.Zoritxaŕez,baña,ezin il eitekean.Lamin ez zan batek,guretariko batek,a ikusi ta beraren,otoirik labuŕena baño ezpazan be,lamiña il eitean,esan egin bear eban.

"Gaazetxe"an ezaguna eben eta laminetariko batek bertara jo eban.

— Gure lamiñetariko bat guztiz txarto dago-ta,aŕen,gure bizi-lekuraño etoŕiko ba-zindekez...Zuk ikusi ta beraren alde otoi labur bat esan arte eztau azken arnasarik emongo.Sari edeŕa izango dozu:beŕogetamar laurleko ta baita beste pitxi edeŕen bat bere.

"Gaazetxe"ko andreak lamiñarekin joatea erabagi eban.Ezbaitziran aldi atan beŕogetamar laurleko edozelan irabazten.Zeozer jazo

Utsaleko zubi ondora eldu ziranean onela iñotson lamiñak andreari:
— Gure etxetik urtetekoan zaratarik entzungo ba-zeunke,ez,aŕen,atzera begiratu.Zoaz beti auŕera zure bidetik,bestela zuk oartu be egiteke saria galdu egingo dozu-ta.

— Ondo da.Ez dot,ez atzera begiratuko.Utsaleko zubira eldu diranean,eŕekea igaro bear,ba,lamin-etxera joan al izateko,ta lamiñak "kask",joten dau ura makil berezi bategaz eta eŕekea erdibi eginda lotu zan.Biak igaro ondoren,lamiñak baŕiro be,"kask" jo egin eban ura makillagaz eta berealaxe lenera egin zan eŕekea.

Sartu etxe baŕura gure andrea,il-agiñean egoan lamiñaren auŕean otoia esan eta alde egin eban.

Lamiñak,ostera,ez eben bialdu gura gure andrea ezer artuteke.Aokada bat beintzat artu egin bear ebala.Jaten ondo damotso.Oŕez gañera, baita uŕezko diru-ontzi batean beŕogetamar laurleko be.

Poz-pozik zan gure andrea etxerako ustean.Itzetik-ortzera,baña,zarata edo entzun eban.Begira atzera,eta agur!,oartzeke uŕezko diru-ontzia galdu egin eban.

 ta uste ebazan

Eŕeka ondora ziranean,lamiñak len lez artu makiĩa ta "kask"...
Oraigoan,baña,urik ez da erdibi eginda lotu."kask" baŕiro be,eta alpeŕikLaister igaŕi eban lamiñak ura zergatik ez zan erdibitzenEz zan baña ausartzen andreari esaten eta joten dau baŕien-baŕiz bere ura makiĩagaz.Urak,baña,ezta zirkiñik bere.

Orduan lamiñak andreari:-- Gure gauzaren bat oartzeke edo artuta ete-daroazu?

Andreak,baña,gorde guraz,erantzuna:---Ez dot uste Andre Lamin.Óŕatz bat bere ez dot artu nik!

Arakatu sakel guztiak eta bardin diñotso baŕiz be:-- Ez,ez,ez dot ezer aurkitzen

-- Zer artu dozun ezpadiñostazu,ezin erdibitu izango dot eŕekarik. Eta ementxe geratuko gara!

Orduan andreak:-- Ogi zatia artu dot,ba,eta zapian batuta daukat. Eztot besterik.Zueneko ogi zuria etxekoei erakustekota ... (Eduŕa bera baño be zuriago ei zan).

-- Ori edonori jazoten jako.Gure etxetik,baña,ezin ezer eroan zeinkez.Ekatzu,beraz,ogi koskor ori,eztau egundo iñok gure gauzarik ikusi bear-ta.

Emon gure andreak ogia eta makiĩagaz "kask" jo ordukoxe erdibitu egin zan ura.Lamiña be berbertan eskutatu zan.

"Gaazetxe"ko atso gaixoak wwwww,jo ona ta jo ara,sari edeŕa irabazi eban.Etxera joyala,baña,urtu egin ei jakozan sakelean beŕogetamar laurlekoak.

Ona zergatik ez dakigun oraindiño,zuzen-zuzen,lamiñak zelakoak diran eta zelan eta nun bizi diran.

- II -

## Lamiña ta Atsoa

Andra-gizon batzuk bizi ei ziran etxe batean;adintsuak eta zar-gazte andi bakoak.Gizona goizago ogeratzen ei zan.Andrea baŕiz "firu" ta "firu" berandurarte.Gabero,baña,eta beti sasoi batez,alako andrazko aŕotza jausten ei jakon kebidetik bera andra gaixoari.

Apari koskoŕik emoteke ezelan bere ezin atara eban aŕotz a.Urdai puska bat eŕeten asi orduko entzuten ebazan betiko lamin-buŕunba ta "txitxi ta papa,papa bustia"? itauna.

Olan igaro ebazan edozenbat aste.Guztiz ikaratuta,gizonari mistik be esaten ez zan ausartzen andra gaixoa.Azkenik be lamiñea aspertuko zaza uste ebazan.

-Nor izan dozu,ba,or?

-Neuk,be,ez dakit nor zan.Aspaldiko egunotan gabero agertzen yat momoro antzeko ori.Eta apaltzen asi orduko betiko itaun auxe egiten daust:"Txitxi ta papa,papa bustia.

-Eta emon egiten dautsozu?

Bearko emon.Zer ba?

-Ondo da.Biar gabean,neu egongo naz zure ordez.Ordu oretan datorena ezin gauza ona izan.~~Sorgin edo lamiñetarikoren bat~~Biar ikusiko dogu sorgin edo lamiñetarikoren bat dan.Alik eta egokien jantziko dodaz zure samako zapia ta burukoa.Beste egunetan lez gaur be zeu zareala uste izango dau.

%%%%% === %%%%

Biaramonez,esan bezela,andrea ogera joan zan eta gizona sutondoan geratu zan iruten ,jo ta ke!

Zaparada aundi bat entzun eban beingoan gizonak kebidean bera jatxi ta ondo-ondoan geratu yakon betiko arotza.Eta berealaxe izan eban eskabidea be:"txitxi ta papa,papa bustia?"

Gure gizonak ez entzun egiten dautso ta egundo baño zoliago diardu iruten.Lamiñak bariz onelan dirautso:"Zeñen zoli diñarduzun lanean"

-Bai.Atzo "frin-frin","firun-firun",gaur "fran-fran","furdulu-furdulu".Eta iruten jaraitu eban gure iruleak arotzari zearka begiratuaz. Lamiñen bat izango zala iduritu yakon eta,ba'iñoan bere kolkorako,len -bai-len uxatu bear ebala.Lamiñak be zer-edo-zer oartu eban eta itaun onek egiten asi zan:"Ez zara zu bestetan emen egoten dana.Gogortxoa edo ez ete-zarean nago.Zure izena?

-"Ni-neu".

-"Ni-neu"?..Eta "txitxi ta papa,papa bustia"?

Gure gizonak sutondoan eukan sartaña koipez gañezka,eta sutan jari eban noz irakingo

Lamiñak,pozaren-pozez,esku-igurtzika asi ta onela diñotso:"Txitxi ta papa,papa bustia"?

Alako batez,koipea urtu ta erea zala begitandu yakonean,"pla" jaurti eutson aurpegira lamiñari.Eta onek berealaxe iges egin eban kebidean gora txilioka

Urten zanean,uluaren-uluz,lamin-lagun guztiak bereganatu ebazan

Eskuak aurpegian ebazala gaŕasika iñarduan eten barik.Zer esan gura eban be ezin ulertu eutsen lagunak.

-Zer dok,ba?Zer dok? Nok eŕe au edu oŕetan?

"Nik-neuk"..="Nik-neuk".

-Ire burua euk eŕe ba-dok,nok yaukak eŕurik? Zertara ator guregana?

III

DOMINISTIKUM

Beste yayo orduko eskuetan ebezala galtzen ei-yakezan umeak guztiak etxe batean.Lau edo bost izan eta lau edo bostak galdu ei-yakoezan.Laster yayoteko zan beste umeari be zer egingo ete-eutsen asmau ezinda,estu ta laŕi ziran.Guztiak kezkati zirala,aingerua baizen ume polita yayo yakoen.Eta ain ume polita galduko yakoena be bururatzea be....

Negaŕez ziran danak,eta negaŕez egozala,auzoko gizon zar-zar bat etxeratu yakoen baŕiak yakiteko asmoz.Guztiak negaŕez ikusita,ezbeaŕen bat edo ete-eben itandu eutsen gizontxoak.

-Ez,ez.Umetxu bat yayo yaku,baña....

-Zer baña? ~~Uwwtwuwbwtwywyw~~ Zeren bildur zarie oŕelan negaŕez urtuteko?

-Oraindiño iñori esan ez dautsaguna zuri esatea be alpeŕik izango dogula uste dogu.Jakin gura dozun ezkero,baña,esan egingo dautsugu yasoten yakuna.Orain arteko umeak,~~wwrtwwekwyw~~ oartu be egiteke galdu izan yakuz.Eta,orain...ume onek be beronen aldia noz izango dauan...laŕi gaukozuz.

-Ori yazoten yatzue,eŕukaŕioi? Yakin izan ba-neu,yakin! Zuzendu egingo dogu,zuzendu egingo dogu gaitz ori be.Ia nok artzen dauan ume ori bes-soetan...Olantxe!Eta oŕelantxe euki aingerutxo ori nik esan arte.

Oztu edo egin zan umea altzoan eta usin egin eban.Gizon zaŕak,baŕiz, berealaxe:"Dominististikum" dirautso auŕari

Deadar zital bat entzun eben orduan ate ostetik:"Madarikatua ori egiten irakatsi dautsuna!Madarikatua umea be!

Eta ori esan ondoren,lamiña itsusi aundi bat buŕundaka yoan zan kebidetik gora.

Gizon zar ari eskeŕak bizi da ~~gurewtwk~~ aŕezkero umea.Eta,ez al da aŕitzeko!

Ordurarteko gaitzez beintzat ařezkero ez da umerik il etxe aretan.

Umeek itsing egiten dabenean "Doministikun, ume!" esaten dautso amak umiari.

IV

Laustaneko jauregia.

Aspaldi-aspaldi jauregi zartu egin yakola-ta, bařibaři bat egingo ete eutsen galdetu ei eutson Lamiñai "Laustaneko" nagusiak.

Baietz, lamiñak: eta ... bere "arimea" saritzat emoten ba-eutson, gaberdi-ostean olarak kukuřuku egin baño len amaituko ebela jauregioi. Laustaneko ... eskiñi eutsen "arimea".

Gau aretantxe asi ziran Lamiñak ... "Ařodoiko" aří goří edeřak landu ta eskutik-esku batak besteari emoten asi ziran. "Eutso, Gilen!.. artu Gilen!... Ekak, Gilen! iñotsen alkaři. Eta egiñez-egiñez ormak gora joiazan. Olatokiko zubitik Lamiñei begira egoan Laustaneko ... ba-eukan zeozertxu eskuan.

Alako batez, artu eben azkenengo ařia Lamiñak "Eutso Gilen...! Artuk Gilen...! Azkena Gilen!...

Une edo lipař aretan lasto-mollan edo azao bati su-emon eta ikařagařizko argia egin eban olatoki auřean Laustaneko naguziak.

Olasko bat eguzkia urten zalakotan, guztiz urdurituta "kukuřukuka" ta ego-oskan asi zan.

"Bilin-bolanka" ur-aundiko oxiñera jaurti eban azkenengo Lamiñak orduantxe eskuetan eukan azken-ařia. "Olar madarikatua"! - ořu egin eta oxiñean uretan sartu ziran danak. Ařia ez dau oindiño oxin aretatik iñork, be, atara al-izan. An dago beti ur-sakonean. Laminak atzaparagaz oratuta ei-dauke.

Ařezkero aři baten utsunea dauka Laustaneko jauregiak.

V

Lamina-lapikoa

Bein, Lamiña bat umo-astun edo ernari egoan. Sengintzetan laguntzen ibilten zan emakume bateri berones etorteko esatera Lamiña bat bialdu eban.

Bidean, etxera elduenean etozan eta Lamiñak auxe esan eutson emakumeari: Zure egikizuna bukatu ondoren, nai dozuna aukeratu dagizun lapiko edo tupin bi eskeñiko dautzuez. Uřezko azalduna bata ta autzezkoa bestea. Autzeze azala eginda daukana aukeratu egizu, aretxek eukiko dau bařuan uřea ta.

-"Ondo dago".

Esandakoa, aukeratu eban emakumeak, eta Lamiñeak esandakoa egi-egia izan zan.

VI

Mundaŕain'go Lamiñeak.

Aintxiña, Lamiñeak bizi ei-ziran Mundaŕain mendian. Mendi-galuŕera uŕezko óŕatziakin uleá óŕazten Eguneroꝛ eguzkia urten orduko juáten ei-zan Basa-Andrea. Eta ba-ekien ori inguru aretako artzaiñak.

Alako baten baña, ilun egoatzen, ostu egin eutson uŕezko óŕatzioi artzain batek eta gero iges egin eban arkoñoŕak.

Konturatu zan baña Basa-Andrea ta artzañaren ondotik asi zan. Eta artzáñoi eskuratu eban, liporean eguzkia agertu zan.

Eta Bas-Andreak, orduan, nai ta ez, bere zulora sartu beaŕ izan eban. Eta artzaiña geratu zan óŕatzi-jaube.

VII

Beorlegi Mendi'ko Lamiñeak

Amaika Lamin-leza ba-zan lēn Beorlegi Mendian! Bein-batez óŕetariko leza baten uŕezko óŕatziagaz ule-óŕazten jarduan. Bas-Andre bat ikusi eban artzain batek. Sekulokuetan ikeratu ei-zan mutiloi!

Ez ikaratzeko esan eutson baña Bás-Andreak, eta lepoan artuta, Apanizera eruaten ba-eban bera, gura-baña diru emongo eutsola.

Baietz, pozik eruango ebala, erantzun eutson artzañak.

Artu eban lepoan, zulotik urten baño len, egundoko pistiak auŕeratu jakozan baña. Bildurtu egin zan artzaña eta antxe bertan jaurti Basá Andre ta ijutika alik-bizkorren iges egin eban.

Orduan Bas-Andreak bildurkaŕizko ulu bat egin eban eta -"Madarikatua ni"- esan eban gaŕazika -, "Mila urtetan buruan egon bear izango dot orain zulo onetan ot.

Eta aŕezkero leza-zulo aretantxe dago beti Andrea. Artzaiñak ez da ara uŕeratzen.

VIII

Bastaŕetxean Lamiñeak

Bastaŕetxekoak gauero, oberatu baño len, esnez betetako pitxar'baten ondoan arto-eŕea ta urdai-zati batzuk isten ei-ebezen sutondoan sartaineko koipe ondakiñaren gaiñean.

Gustiak lukartzen ziranean Lamiñeak etorten ziran kebidean-bera. Eta sutondoko ondakin gustiak iruntzi arte "kiŕi-kaŕa" ixiltzeka egoten

ziran. Eta gero kebidean gora joaten ziran, ixilik baña.

Eta biaramonean simauŕak zabalduta, eŕekak garbituta, luŕak goldatuta ta artoak joŕatuta aurkitzen ebezan Bastaŕetxekoak.

Gau batez, sutondoan pitxarkada esne, ez urdaizati, ez arto-eŕe, ezer be isteka oeratu ziran Bastaŕetxetaŕak, eta Lamiñeak, asaŕe, beste baseŕi batera jo eben, uŕiñera gañera, uŕiñetara juan ziran. Egundo ez ziran ba, Bastaŕetxe'ko biargunetzetara agertu.

IX

Lamiñea imilaunpean

Etxe baten, edonoz sartzen ei jakoezan Lamiñeak. Iluntze batez, oerakoan auzpez itxi eban imilauna etxeko andreak eta biaramonean Lamiña bat idoro ei-eban imilaunpean itota. Ikaratu egin zan; ikaratzeko zan izan be ta.
Lur-santuen egin eben zuloa ta antxe sartu eben.

Asunez josi ei-zan biaramunerako Lamiñea sartu eben tokia. Aŕezkero sekulo ezin garbitu izan dabe lekua.

X

Lamiñea ta aŕi-jotzalea.

Antziña-antziña be-ei zan alako aŕi-jotzale bat.

Beti aŕi-joten aspertu zan eta beste zer-edo-zer egitea obako ebala sartu yakon buruan. Aberats izatea nai.

Lamiñak asko ziran eta Lamiña batek entzun eutson eta egin eban aberats. Diruak ase zan; bera baño nagusiagoak be, ba-zirala baña ta naiago eban "Batzaldiane" izan. Eta "Batzaldiane" egin eban Lamiñeak.

Uda-min batez asaŕetu egin eban Eguzkiak. "Eguzki oŕen ala ba-neu!". Eta Eguzki egin eban Lamineak.

Egun batez odei bat aurez-auŕe jaŕi ta ilundu egin zan eguraldia, apur bat baña; orduan gustiz damututa "Odei" izatea obako ebala bururatu yakon. Eta "Odei" egin eban Lamiñeak.

Euri-zaparada sogorak luŕera botaten ebazanaŕen, aitz aundi bat ezekan be zirkiñik ezin eragin eutsona siñestu eban baña, ta "odei" baño "aitz" izatea obatzat etsi eban. Eta "Aitz" egin eban Lamiñeak.

Gizon batek baña, burdin-maluagaz jo-ta-jo, luŕa jo-eragin eutson. Eta bera luŕeratu obena lakoxea izan nai leukela esaten asi zan diadarka.

Eta "aŕi-jotzale" egin eban Lamiñeak. "Bat" datozak "bestea" nai.

~~giñotson ixaka edo burlas~~-, ora, i, be, lenera biurtu gagozan. Gaurtik aurera ~~izan gaitezan~~ lengoak: "ari jotzale" ta "Lamiña" ni.

Eta bein-betirako eskutatu yakon Lamiñea gure "ari-jotzaleari".

(Lenengo zatiaren amaia).

## Bigaŕen zatia

### I Gari-jotea

Be'ebiltzan beste bein Josu Jauna ta Kepa auzoli

Beste bein Josu ta Kepa aunda ba-ebilzan jo batera ta jo bestera aundi onetan. Iluntzi batez ostatu eskatu eben etxe batean. Gela bat eutsela erantzun eutsen, eta gelean oe bat izango ebela.

Ostatu-saria emon nai ta biaramonean zein biarguntzatan jarduteko asmoa eben itandu eben Josu'k. Gariak jo bear izango ebela erantzun eben etxekoak. Josu'k orduan, gariak berak eta bere lagunak joko ebezala eta etorteko esan eutsoen beargiñei, ez etorteko esan egiguela diraute. Olantxe egin eben etxekoak.

Biaramonean, Josu ta Kepa, eguna zabaldu orduko asiko zirala lanean uste eban etxagunak. Ineik baña, eguna zabalduaren, oean!. Asaŕe ziran gure etxekoak.

Azkenez zitaldu zan etxaguna ta logelan sartuta -"ainbeste gari joteko eukita eguna argitu danik ez yatzue bururatzen?"- esan eutsoen.

-Ineik ostera, baietz, jagiko zirala...

Ta, Ez ziran baña jagiten oneik eta etxagunak, asaré auxe dirautse: "jagiteko usterik ete eben, ala ez".

-Baietz, oneik jagiko zirala... Sekulo, be, jagi ez baña!

Orduan, asaré gorituta, makila bat artu ta joan zan gure etxagunaren gelara eta oe-muturrean egoanari, Kepa Deun eŕukaŕiari- egundoko astindua emon eutsan. Alde eban gero andik.

Josu'k oindiño ezergaitik be, ez, eban nai jagiterik eta Kepa Deunaren intziri edo zotiñak entzunik, auxe dirautso: "Etxekoak asaŕe yuaguz: atoŕ oe-bastaŕera eure malatuok igurtzeko; bestela, baŕiro be, jo egingo abe muturr oŕetan".

Kepa Deuna oe-bastaŕera sartu orduko, oŕ dator gure nagusia, etxaguna artuta, makila eskuan, -zagoze, zagoze- didarka-, lasterik ikusiko yoagu jagiko zareen: oe muturrean artu zozak edaŕak lentxoago, bastaŕekoaren txandea dok orain". Eta oe-bastaŕean egoan Kepa zigortu eban, ondo zigortu, be, gañera.

Jagi ziran -Kepa Deuna negaŕ ta negaŕ-, gari pilatak soltatu ta su emon eutsoen gari-metari. Eta su arek, lastoak alde batera, lasto -txiki ta aotza bestera ta galburua beste batera egin ebazan.

x. x. x.

Goizeko asaŕe guztiak aztu ta poz-pozik geratu ziran etxe aretakoak. Josu'k, su emonda gariak garandu ebazana jakin ebenean ango beste auzokoak euren gariai, be, su emon eutsoen eta.... danak eŕe eben.

## II Lexibea.

Beste bein aren etxean gaua igaro nai ebela-ta beartsu batzuengana jo eben Josu'k eta Kepa Deuna'k, eta antxe lo egin eben.

Biaramonean, andik alde egitean "zein bearguntzatan ekiteko asmoa euken "itandu eutsen Josu'k. "Lexibea" jo bear ebela erantzun eben.

Josu'k orduan -"Goizean asitako lanak iluntzerarte iraun dagizuela -" esan eutsoen.

-"Bai; gauzea uste dozue; lexiba joten iluntzarteko barre, iru edo lau zapi joteko?" Josu'k bariro: "Nire itza beteko al-da"!

Au esan ostean alde eben andik.

"Jo ta atara", "jo ta atara" lexiba joten iluntzarteko beara izan eben egaldi areik. Iluntzean mendia baizen izara-pilo aundia euken. Ez ekien zapi areik nun esegi eikezanik be.

Eta auzoko lagun zeken batzuk, beartsu arei zer jazo yakten ikusita, gaua igarotera euren etxetara, aren etorteko, eskatu eutsen Josu ta Kepa Deunari. !Bai juan be, Josu ona! Eta biaramonean, be, aureko egunean beste beartzuei letz, "zertan jardungo eben egun aretan" galdetu eutsien Josu'k etxe aretakuari, be.

-"Jauna, guk diran piska bat ba-dogu eta zenbat daukogun jakiteko diruok kontatu nai geunkez.

Eta Josu'k -"goizean asitako lanak gabrarte iraunbekizue"- erantzun eutsoen.

-"O! Jauna! gure diru apurak zenbatzen, kontatan iluntzerarteko zeregiña? Bai zera!". Josu'k bariro:-Nire etzak izango al-dau indar ori!". Ori esan ostean, joan ziran andik.

Poztu ziran zeken areik sekulo iñor poztu ba-da! !Iluntzean, bai, areik ure ta zidar-piloa!

Lana asi orduko eta gero astirik ez galtzeko -azketsi- "bakartokira" (komunera) joan ziran baña aurez. Eta andik ezin urten eta iluntzerarte antxe egon beara izan eben...

## III Azao-osten

Euzkadi'n zear ebiltzan orduan, be, Josu Jauna ta Kepa Deuna. Solo lau batean azao-porten edo lotzen ziarduen baseritar batzuk "Ugaro daukozue-edo"- galdetu eutsen Josu'k-" Asko, be, ez Jauna: urixamar.".

Bereala mistik esateke alde eban Josu'k.

Arutzago, beste solo baten, be, azao lotzen ziarduen beste baseritar batzuk.

-"Ugari al-dozue".

-Bai Jauna bai: gitxiago, be, izan giñeikean; Jainkoa'k emon dausku ta Berari dautsoguz zor eskerak.

-Azaoak-aña gari-imiña izango al-yoek diñautso Josu'k Kepa Deunari.

Eta Kepa beargiñei begira geratuta -"Azao asko ta txikiak egizuez"- esan eutsoen Kepa Deunak.

## IV - Ezkontzak

Beste bein aberatsak beartzuakin, osasuntsuak geixoekin eta aundikiak txiroekin eskondu naiean ebilan Kepa Deuna ta Josu'k ez-jakiñarena egiten eban.

Alako ezkontza gitxi egingo ebazala esan eutson alako batez Josu'k. Eta, era aretako ezkontzak iñok ontzat artzen ez ebazalako, alperik zala-rean ekitia-ta, aspertu zan Kepa Deuna, be, alako batez.

Oraitiño, orduan. Bai, bai-ta gaur-egunez, be, ezkongei aundiak asko eskontzen dira txiki koskor batzuekin.

## V Andrazko narasa ta andrazko jasoa

Beste bein, sargori egiten eban eta bidean egaritu egin ziran Josu ta Kepa Deuna. Ituri ondo batetik igarotekoan Josu'k eskatuta, ura emon eutsoen andra batek edontzi zikiñean baten.

-"Jainkoak lagun on bat emon dagizula" esan eta ura edan ostean atzera emon eutson edontzia. Aurerago juan ziranean, ostera, be, egaritu ziran eta beste andrazko batek edontzi garbi-garbi baten emon euxtsoen ura.

Josu'k orduan: "Lagun nagi bat emon dagizula Jainkoak esan eutson.

Urin-Azamarera ziranean Kepa Deunak asarez auxe esan eutson Josu'ri: "Jauna, zer dala-ta opa izan dautsozu lagun ona lenengo andrazko narasari ta bigaren andrazko garbi edo jasoari lagun nagia?

-"Lenengoko arek lagun onarekin, be, naiko zeregin izango dau; bigarenak, ostera, lagun nagiari, be zuzen ibilten erakutsiko dautso" -erantzun eutzon Josu'k.

## VI Andrearen eta deabruaren buruak

Egun batez Josu Jauna ta Kepa Deuna alkarekin juazan eta bidean andrazko bat eta deabrua burukan ikusi ebezan. Eurenganatu zan Kepa Deun adoretsua ta Bieri buruak ebagi eutsezan. Josu'k agiraka egin eutson, gogor egin, be, ta bakotxari bere burua atzera lengo lekuan ipinteko agindu eutson.

Kepa Deun gaixoak, zer egiten eban ez ekiala, andreari deabruaren burua ta deabruari andrearena ezari eutson.

Eta "andra-buru.... andre-buru" esaera ordutikoxea dogu.

VII Kepa Deuna'ren zaldia.

Beste bein, "zaldia emongo dautsat"-esan eutson Josu Jauna'k Kepa Deunari- "Gure Aita" nastu barik eta buruz esaten ba-daustak.

-Bai! ez daustazu gauza zailik agindu...

Eta "zarapastaka" asi zan Kepa Deuna: "Aita gurea, zeruetan zagozana, onetsia izan bedi zure izena.... Jarleku ta guzti ala jaitiku bako zaldia izango da baña, Jauna?"

Eta Josu'k -"Ez zaldirik ez jarlekurik ez dautsat emongo"- erantzun eutson.

VIII Burdia itzulia.

Beste bein, be, Euskal-Erian ebiltzala Josu Jauna ta Kepa Deuna. Burdia itzuli yakon gizon bat Jaungoikoa'ri aren burdia jaso egiola otoika egoan bide erdian belaunbiko. Josu, Jirai zean begiratu, be, egiteka aurera juan zan.

Aureratxoago juan eta beste gizon bat idoro eben. Oneri, be, burdia itzuli yakon. Gora batetik eta gora bestetik burdia jaso ezinda, izerditan egoan. Bastarak ere bearean gora-goraka.

-"Kepa, gizon oni burdia jaso-eragin dagiogun"- diñotso Josu'k Kepari.

Kepa'k -"Zer Jauna -dirautso- len arenka ikusi dogunari lagundu ez eta oni lagundu? goiak eta beiak ere bearen dabilan oni lagundu?

-"Onek egin-alak egiten vozak, eta arek ez"- Josu Jaunak yardetsi eutson Kepa Deuna'ri.

IX Zaldi-pera ta gerizak.

Ba-ebiltzan beste bein, be, Euzkadi'n Josu Jauna ta Kepa Deuna eta Josu Jaunak lurean zerbait erakutsiaz: "jaso egik lureko pera ori" -esan eutson Kepa Deuna'ri. Kepa Deunak baña ostikoagaz jo eban zaldi-pera ta -"zertarako jaso burdin-zar ori?"- iñoan bere kolkorako. Ixil-eskutuka Josu Jauna'k Berak jaso eban perea ta erira ziranean erementari bateri saldu eutson txakurtxiki bitan. Txakur-txiki areikin geriza batzuk erosi ebazan gero; eta bariro be, bideari ekin eutsoen.

Sargori baño sargoriago egiten eban. Kepa Deuna'ri estaria legortu yakon eta alderdi guztietara begira- "ez ete yoagu ituri koskor bat idoroko?" - iñoan bere kolkorako.

Bitartean geriza bat jausi yakon Josu Jauna'ri kolkotik. Berialaxe jaso eban Kepa Deunak eta estu ta lari laster aoratu eban. Ikusi eban baña Josu Jaunak ...

Gerotxoago, be, bakotxian bat, bi, amar beti botaten ebazan Josu'k

Beartsu guztiak, bat-edo-batak zerbait emon teyen tsey bakoitzean bet eranstzun bardiña esaten ebela beti oartu ebay Kepa Deunak: "Eskerrik asko!"

~~eta Kepa Deunak dan-danak jari.~~

Gero, zugatz(e)-itzalean takatx egin eben ~~Itzalpe baten geratu ziran piska baten~~ eta Josu Jaunak -"bein bakarik makurtu ba´intza, gerizak jateko-esan eutson ~~Kepa Deuna~~´ri-ogei aldiz makurtubeerik ez eban izango".

X - Uŕe-zidaŕak eloŕi zurian.

Josu Jauna ta Kepa Deuna ~~onuzko-aldean~~ uri-alde ozetan ebilzanean, ~~norbaitek~~ zerbait emoten eutsen beartsu guztiak- "eskerrik asko; Jaungoikoa´k ordainduko al-dautzu"- ~~esaten ebela~~ beti, oartu eban Kepa Deunak.

Kepa Deunak orduan:-Geiago ez naz juango zurekin- iñotson Josu Jaunari- bastaŕ guztiak zoŕez bete dozuz-eta. Eskeko guztiak -"Jainkoak ordainduko aldautzu-" diñoe beti!"

-Nirekin gogait egin ba-dok, Kepa, guazen bakotxa bere bidetik- erantzun eutson Josu Jauna´k. Eta orixe egin eben, egin be.

Berialaxe baña eloŕi-zuri baten ondora juan zan Josu Jauna. Astin-astin egin eban Josu´k eloŕi-eurioti ta egundoko zidar eta uŕe piloa jausi zan.

Zidaŕ eta uŕeak jaustekoan egiten eben "tin-tin" ~~otsa entzun eban Kepa´k, be~~ Kepa´k be entzun egin eban. Arin-aringa eloŕipera juan eta diruak batzen asi zan.

Josu´k baña:-Ez Kepa, ez- esan eutson- diru ori ez jaso, zoŕak ordain tzeko neuk beaŕ yoat-eta".

~~Makal-makal~~ Kikil-kikil eginda auxe esan eutson Kepa´k Josu Jaunari: "Jauna, orain eta gero, be, zuk eurez ordainduko dozuz ~~zuk~~ zoŕak eta zure lagun izan nai neuke beti".

XI - España ta bakea.

Ba-ebiltzan aldi artan Josu Jauna ta Kepa Deuna España-aldetik, be. Eŕi batetikeŕi igarotean, eŕi aretako agintariak eldu yakozan, Ebangelioa entzun nai ebela-ta.

Ebangelioa entzun ondoren Kepa Deunarengana jo eben ta- "Jauna-diñotse- zure beaŕ gaitukezuz. Gure Abeŕiarentzat lau gauza lortu nai geunkez zure nagusiarengandik. Ogia, ardaoa ta aragia ugari ta gero bakea. (beti bakea) oŕetxek gura geunkez.

~~Entzun eban~~ Josu´k baña arein eskabidea entzun, eurengana uŕeratu ta auxe esan eutsen: "lau gauza oŕeik ezin alkaŕ- artu daike. Ogia, ardaoa ta aragia ugari izango dozue, bakerik ez baña".

Aŕezkero, ~~España´n~~ jana ta edaria ugari dabez Españia'n, ~~bakea~~ uŕi, baña bakea

XII - Jaungoikoa´ren begia

Alkaŕekin topatzan beste bein, be, Josu Jauna ta Kepa Deuna. Kepa Deuna gosearen-gozez aulduta, luŕera jausitako galburuak eskuratu, atzamaŕ-artean eio ta ixil-eskutuka jaten asi zan.

Eta orra zer diñotson Josu'k

-Kepa! ~~-diñotso orduan Josu'k~~ begiratu egiok nire buru-atzeari".

-Ai, ene Jauna! Begi aundi-aundi bat dozu zuk ori!"

-"Bai, ta onetxekin ikusi aut lentxoago galburu-jasoten."

XIII Onak eta ~~txarrak~~ gaiztoak

Oñaztaria jausi zan bein eri batera eta Kepa Deuna'k itaundu eutson Josu'ri:
-"Jauna- esan eutson ~~Josu'ri orduan~~- zegaitik jausi da on eta gaiztoen gañera? Zer dala-ta gaiztoen gañera bakarik ez da jausi.

Lenengotan Josu'k ez eutson ezer erantzun. Aureratxuago baña -"Kepa- diñotso ~~Josu'k~~ erlabatza ori jaso egik"

-"Ez dogu baña ~~sartu egik~~" erlauntzik"
-"Eta zer! Sartu egik kolkoan!"
Sartu eban ~~kolkoan~~ Kepa Deunak erlabatza ori; berialaxe baña garasika asi zan ~~baña~~: "Ai ene! Guztiak sastaka asi yataz! !Ai ene!".

Urrintxuago: garrisko be Josu'k: diñautso Kepa'ri - "Emon egidak erlabatza ori! erlautz oretan sartu dagidan"- ~~diñautso Josu'k~~.

-Baña guztiak ~~itto~~ ilda dodaz".

-"Zer dala-ta?"

-"Sast egiten eustelako".

-"Sast egin? Guztiak? Zer dala-ta onak eta gaiztoak dan-danak ~~itto~~ ilda?"

XIV Iizko-esia.

Josu Jauna ta Kepa Deuna Euskalerrittik ebiltzan.

Noz ilgo ziran, be, ba-ekien orduko gizonak. Egun batez, landa batetik bastar ~~zear~~ yoyazan eta iizko esiagaz ~~soloa~~ zaratzen ari arduan gizon bat ikusi eban Josu Jauna'k. Arin esi kaskara zegaitik egiten eban itandu eutson Josu'k.

-"Oi Jauna! Iru egunen buruan ilgo naz ta nik-aña iraungo al-dau esi onek!".

-"Ori be bai? Emendik aurera noz ilgo zarienik ez dozue iakingo -esan eban Josu'k ~~orduan~~.

(Bureko Folkloa) XV Mai-zapia, astoa ta makilea (Makila Kirki)

Beste bein, iru seme ziran etxe baten.

-"Egizuz opilak, diru-bila juan gura dot-eta" - esan eutson zarenak amari egun batez.

Egin ebazan opilok amak eta alde eban etxetik seme ořek. Ba-yogaba eřeka-bastar batean Josu Jauna ta Kepa Deuna idoro ebazan.

Eta Josu'k deadařka -"i! mutiko,- diñotso- beste aldera eruango al-gaituk emongo dautsagu zeozertxo-ta?"

-"Orixe bai!" - Bai laster eruan, be, beste aldera.

Josu Jaunak orduan mai-zapi bat emon eutson saritzat. "Eutso-esan eutson- mai zapi au ta gose edo egaři izaten azanean "zabaldu adi" mai-zapi" esan egiok eta beste barik jateko ta edateko beař dokan guztia izango dok mai-zapi gaiñean."

Dirua egin ebala ta etxe-aldera bigurtu zan bereala gure mutikoa. Ibili ta ibili, ibiliaren-buruz, ostatu batera zan gaberako. Oerakoan ostalariari emon eutson gorde egiteko mai-zapiori. Eta mai-zapi ari aren ez esateko "mai-zapi, zabaldu adi" esan eutson. Ezetz, ez eutsola esango erantzun eban ostalariak.

Mutiloi oeratu zanean ostalariak "mai-zapi, zabaldu adi" esan eutson mai-zapiari. Eta beingoan, egundoko janari ta edariak azaldu ziran "Frist" eta "prast" mai-zapi gañean. Iñor aritu ba-da areitxek aritu ziran orduan. Ostalaria bai aritu zala.

Mai-zapi ori beste antzeko baten ordez trukatu eutson. Eta pozaren ixil-ixilik oeratu ziran ostalariak.

Biaramonean ostatutik alde egin eta lasteř gosetu zan gure mutila; zugazpe batean itxi eban mai-zapia ta "mai-zapi-zabaldu adi" esan eutson. Esan eta esan, mai-zapia utsik gure mutila, bere biotz-miñak auldatu, dirurik barik etxeratu zan.

Andik laster bigaren semeak, be, auxe diñotso amari: "Ama! diru egitera juan nadin, egidazuz arin opilak". Ama opilak. Orduan juan zan etxetik semeoi. Josu Jauna ta Kepa Deuna ikusi ebazen arek, be, eřeka bastar batean.

Josu Jauna'k oneri, be, deadař egin eta "i, gazte, eruango al-gaituk beste aldera? Eruatiaren a emongo dautsagu" - esan eutson.

Baietz mutilak eta bai eruan, be.

Orduan Josu Jauna'k astoa damotso saritzat. "Eutso -esanez- artu egik asko au. Diru-premiñan azenetan "ekin ene asto" esaiok eta asto ořek uřea egingo yok puřustaka".

Aberastu zala-ta etxeruntz jo eban gure mutilonek. Iluntzean anai -zařena sartu zan ostatu artan sartu zan. Eta oerakoan astoa emonaz "aren asto oni ez esan gero "ekin ene asto"- esan eutson ostalariari. "Ezetz" onek.

Mutila oeratu zanean baña, ostalariak esan eutson astoari "ekin ene asto" ta puřustadaka uřea eriola beingoan asi yakon astoa. Danak ika-batu ziran. Danak ixil-ixilik oeratu ziran. Asto aren ordez antzeko beste bat ipiñi ...

~~Biaramonean asto aren truke beste aren antzeko bat emon eutsen eta~~, Biaramonean ostatutik urten ondoren "ekin ene asto" diñotso gure mutilak. ~~Azketsi~~! ~~korotza egin eban baña~~. Eta gure mutila , diru barik erdi-zoratuta etxeratu zan. Astoak baña ez eban urerik egin!..

...............

Andik laster irugaren semeak be -"ama! egizuz askar opilak diru -egiten juan nadin" - dirautso amari. Egin ebazan amak opilak eta alde eban semeak.

Lengo erekando ~~bere~~ bertan basterrean ikusi ebazan onek, be, Josu Jauna ta Kepa Deuna. Josu Jauna'k eskatuta ~~ertuan ebazan~~ onek, be, beste-aldera ~~Josu ta Kepa~~. Josu Jaunak makila bat emon eutson saritzat. Biak eroan ebazan

-"Egundo iñun areriorik agertzen ba-yak "jo, Maria, jo" esan egiok makileari ta ikustekoak ikusiko dozak"- esan eutson.

-Agureta [illegible]. Iluntzerako bere anai biak egon ziran ostatu -ber-bertara jo eban.

Oerakoan- "gorde egidazue, aren, makila au biar goizerarte"- diñotse ostalariei. Zuen onez baña "jo, Maria, jo" ez eyozue esan.-"Ez" ba ostalariak.

Mutila oera zanean, ostalariak makila artuta "jo, Maria, jo" diñotso.

Ai, ta zer! ~~Eta orduan~~ Makilea !kiski-kaska, zipli-zapla, jo ta jo! inguruko guztiak biriridu-enean asi yakoen eta "aienaka" ta "aienaka" azi ziran guztiak. Makilea baña iñundik-iñora ezin geratu; jo ta jo beti makileak.

Azkenez, zaparadea entzunik jagi zan gure mutila; eta ostalariak erdi -zoratuta-" aren eta aren [illegible] geratu egizu makilea eta "zabaldu adi mai-zapia" ta "ekin ene astoa" guztiak emongo dautzuguz"- ~~iñotson garasika~~.

Gure mutilak "geldi, Maria, geldi" esanik geratu eban makilea. Eta "ekin ene asto'ren" gañean, "zabaldu, adi mai-zapi" besapean eta "jo, Maria, jo" eskuan artuta etxeratu zan.

Eta bere anai biakin eta amarekin aberats bizi izan zan, Jainkoa'k daki noz-arte.

Ondo bizi izan ba-ziran ~~eta ondo~~ il be, ~~egingo~~ ziran.

XVI Ariatta pekorotza.

Egun batez alkarekin yoazan Josu Jauna ta Kepa Deuna. Basterrera begira yoyan Kepa Deuna ta ari aundi bat jo eban ankea[illegible]. Min aundia artu eban, ~~gizarajoak~~ gaixoak.

~~Zitalduta~~ Muxinduta besagainka jaurtzeko ustez artu eban aria. Josu Jauna'k baña -"ez adi ~~edu~~ oretan [illegible]- esan eutson orduan- ari gogor oretatik egingo yoat nik Euskelduna". Baita egin, be:

Ba yoazan aurera ta Kepa Deuna zabal-zabal pekorotz pilo, aundi baten jauzi zan ostera, be.

Asaŕatu egin zan barriro be gaixoa.

Orain, be, asaŕetu zan gizarajoa. Baña Josu Jauna´k -"ez adi asaŕetu, Kepa, ta begiratu ogik oŕa nun jaŕten dozan" esan eutson- eta pekorotz oŕegaz zer egingo yoagu?

-Egizu "Galegoa" Jauna.

"Galegoa" egingo yoagu orduan Kepa." Eta, "galegoa" egin eban Josu Jaunak.

XVII Beso bi, anka bi ta sabel bakaŕ bat.

Beste bein, ondo ausnartu ondoren, auxe galdetu eutson Kepa Deunak Josu Jauna´ri "beso bi, anka bi, begi bi ta belaŕiak, be, bi doguz eta zergaitik ez sabel bi?"

-"Bat bakaŕa betetzea be, gizonarentzat naiko zeregin dalako- erantzun eutson Josu Jauna´k.

XVIII Trentekutxilo.

Euskaleŕia´n ebiltzan Josu Jauna ta Kepa Deuna ta egun batez gizon batekin buruz-buru egin eben. Gizonau gudari izan zan zauritua zan gizarajoa ta eskean ebilan .

Limosna edo eskupekotxo bat eskatu eutson Josu Jauna´ri gudari zaŕak. Eta Josu Jauna´k "semeikorik, be, ez yuat" erantzun eutson; zer-edo-zer emongo eutsola baña ta "-orain bertan zakua, ala gero zerua, zer nadi dozu? - galdetu eutson.

Eta belaŕira - "zerua eskatu egiok" - esan eutson Kepa Deunak.

Eskaleak baña atzera auxe esan eutson Kepa´ri: "Ankaŕ esan dozu...! Zerura juan arte bizi beaŕik izango ez ba´litzake..!! Emoidezu, aŕen zakua Jauna".

Zakua damotso Josu Jaunak eta "ezer beaŕ dozunean "Trentekutxilo" esan zaku oni ta gura dozuna lortuko dozu" - dirautso.

"Aguŕ eta eskerrik asko: eta Kepa Deuna´ren aolku batzuk entzun ondoren, ba-doa gure gizona. Eta andik laster, ogi bero-beroz betetako burdia eroyan okin bat idoro eban. Eta gudariak ogi bat emongo ete eutson galdetu eutson okinari.
-Ogi puska bat emongo al daustazu?

-Ogi oneik iretzat dirala uste dok? Ez dautsat emongo, ta zoaz eure bidetik.

-A! Itxaron!... Eskekuak beingoan "Trentekutxilo" diñoso zakuari ta orduan zaku guztia ogiz bete yakon. Eta egun batzuetarako ogia ba -eukala-ta pozik juan zan andik.

Andik egun gitxiren buruan, gizon bat idoro eban. Astoa diruz beteta ekaŕan gizonoŕek eta zerga- batzalea zirudian.

Gure eskekoak -"aŕen semeiko bat edo beste emongo, al-daustazu

-" esan eutson.

-Semeiko bat edo beste? Ez ta sotz bat be... Diru oneik iretzat batu yoadazala uste dok? dile ?"

Esan ba-eban, esan eban!.. "Trentekutxilo'ka ekin eutson gure gudari zaŕak eta berialaxe bete yakon uŕez zakua aundia.

Aŕezkero aberats izan zan beti.

Ezkondu egin zan andik laster eta zorioneko bizi zan. Egunero egiten eban ibilalditxoa be; xaxxaxz egin be.

Egun baten, baña, ~~Bere~~ ~~emaztea~~ geroago ta ilunago jarten yakola oartu eban ~~egun batez baña~~.

Ez ete dozu ba gurea dozun gustia.

-"Zer dozu oŕen itun egoteko? Zer gura zenduke?" Lenengotan eteutson ezer be, adierasoten ... Gero esan eutson oŕaitiño. Senarra etxetik urteten zan bakotxean gizon itsusi aundi bat agertzen yakola ~~esan eutson~~ - eta mamoŕo arek ikaraz beteten ebala. Biaramonean gudari zaŕak kanpora ~~bai luan~~ egin eban eta ate-ostean gelditu zan.
jotelko alegia

Eldu zan gizon itsusia, baita gure gudaria "Trentekutxilo'ka" asi, be, izugarri azkaŕ! Eta ... zaku-baŕura, ~~buruz bera~~, gizon itsusia. Orduan gure gudariak jo ta jo, zakuan biŕenduta, ilda itzi eban.

Ba-darratsoz, gero gizonaren azuŕak eŕiko eŕementariari azuŕ areikaz zeozer egin ... Gurutzea egin nai izan eban eŕementariak. Iñun diño alegiñak egiñaren baña ezin egin al-izan eban ~~baña~~. Gizon itsusi a ... bat izango zalakotan, geratu ziran.

Gaixotu ta il egin zan azkenean gudari zaŕa. Ilaurre tik baña, Bere zakua ~~mesedez~~ il-kaxan sartu egiela eskatu eutson andreari ~~il aurretik lon baña~~.

Bere zakuagaz juan zan, ba, zeruko atetara. Kepa Deunak baña, aterik eregiteke, leiatil batetik begiratu eutson. Ezagutu egin eban gure gizona ta bertatan deadaŕka -"nora eldu az-esaten asi yakon-;zerura? i zerura? Zerua edo zakua aukeratzeko Josu Jaunak esan eutsanean, zerua laga ta zakua autu eban ik. Oa orain nai dokan tokira eure zakuoŕekin" Asaŕearen-asaŕez itxi eban leiatila.

Ba-joyan gure gizonoi [redacted]. ? Bidean izugarrizko etxai taldea ~~deabruak~~ auŕeratu yakozan beta sarda zoŕotzak eskuetan ebiltzala diadaŕka auxe iñotsen: "Norako asmoz oa oŕuntz? Inpernura? Y inpernura? Orain urte batzuk euk il eban gure aita ludian. Burrurik ba-dok oa emendik, oa azkar!

Eldu zan baŕiro, be, olondorira ~~auŕera~~... Orаingo onetan, Kepa Deunak atea erdi-eregita eukan ~~bearizu~~ oartzeke ta sartu egin zan baŕura gure gudari ~~biuŕia~~. zarra

Azkaŕ asko ~~konturatu zan~~ igarri eban Kepa Deunak, baña, ta "andik urteteko, azkar gañera "uzten egiala"- diadarka asi yakon ~~Kepa Deuna~~.

Gure gizonak zerbait erantzun gura eutson; Kepa Deuna'k ez baña nai entzun ~~baña~~.

Geiago Zer egin be ez ekian eta "Grentekutxilo"ka, asi zan gudari biuŕia. Zakura sartzerik ez nai ta zalapastaka asi zan Kepa Deunak. Baña -parkatu Jainkoa- nai ta ez zaku madarikatuan sartu beaŕa izan eban, Josu Jaunak emon eutson al men ori ta... oŕelantxa agindu ta eutsen eukalako.

Aitta piriu Maria uŕeratu zan orduan maste aretara. Gudari biuŕiaren egiñenak entzun ondoan iripaŕez onak egin ebazan: Atera eban Kepa Deuna, ondo esatez baretu ta... gudaria, be, sartu eban dauntzian. Arutz ba-goaz ikusiko zegu egunen batez. gure bertara ate ondo-ondoan, eskumako aldean, ikusiko dogu egunen batez gudari zaria.

XIX Eŕegiña bat basoan

Ba-ziran bein batez andra-gizon aberats batzuk.

Miren Balendiñe izeneko neska bat, izan eben. Miren Balendiñe'k amabost urte eukazanean il zan ama ta baŕiro ezkondu zan aita.

Bigaŕen amea ordea oso gaiztoa izan zan neskatilearentzat.

Neskatilearentzat okeŕa zan bigaŕen andrea. Egun batez, aita etxetik -landa zan ebilala andra oŕek txaŕi bat il eban eta senaŕa etoŕi zanean Miren Balendiñe'k il ebala esan eutson.

Txaŕia nok il eban itaundu eutson aitak umeari. Eta umeak, berak ezetz.

Egun batzuk gerotxoago beoŕ bat il eban andra anker arek eta senaŕari beoro Miren Balendiñe'ni il ebala. Aitak umeari, beoŕa nok il eban galdetu eutson baŕiro be, eta umeak, berak ezetz.

Miren Balendiñe ez zan guzurtia ta siñestu egin eutson aitak.

Orduan gorotz bizia auxe esan eutson senaŕari:

-"Oraintxe dakust ikusi, Miren Balendiñe'k egiten daben guztia ontzat artzen dozuna alakoxea".

Eta andra biuŕiak orduan bere semea bigaŕen eskontzako ume bakaŕa il eban. Antxintxiketan juan zan gizon agana, eta, beti lez, Miren Balendiñe'ren gain bota eban eŕu guzti-guztia.

Aitak baŕiro be galde egin eutson Miren Balendiñe'ri, ta ezetz.

Umea il ebana a zan galdetu eutson, aitak Maria Balentiña'ri ta onek ezetz berau.

Aitak baña, ataŕe biziak gaiztakeriatako baño ez zala izango bere alabea ta. Eta oŕa a, asaŕearen-asaŕez esku biak mai-gañean ipiñi arazo ta labaña aundi bategaz eskuetako atzamaŕ guztiak ebagi eutsozan. Eta gero dualala nai daben tokira etxetik bialdu egin eban.

Eta gero fanrti egin eban etxetik, "olagale gura daben tokira".

Negaŕez eskuak batzeko zapirik ez, ta zapi eske gaŕasika, eskuetatik odola eriola, ebilan neskatilea. Ostikoka atara eban etxetik aitak.

eta Miren Balendiñek aitari auxe esan eutson etxetik urtetekoan: "Eloŕi bat sartuko al yatzu eskuan eta ni etxera baŕiro sartu-arte ez al dozu ataŕako".

Negaŕez gaŕasika iñardunaz zerka gaixoak, eskuak odoletan, zauri izugariak bete ta ko zapia eziñ biletuaz.

Eta, erdi-tatařez, odola-eriola, uřindu zan zori-txařeko neskatila.

Ibili eta ibili, begiak negarretan beti, baso baltz batera eldu zan ilunt zean eta, ilunetan, zulo aundi batera jausi zan.

Atzamařak ebagita eukazan-eta ezelan be, ezin urten andik; ezin eldu eiki onerantz. Eskuetako miñez ta basa-piztien bildurez gau ikaragařia igaro eban zulo aretan.

Biaramonean, txakuřakaz eizerako asmoz toki aretako Bekaldune etoři zan baso aretara.

Txakurak, jauzika, Miren Balendiñe egoan zulora sartu ziran. Ez ei-zan gitxi ikaratu neskatilea.

Aita dongea baño obeak izan ziran txakuřak atan be. Neskeari zauriak miazkatu ta alde egin eben.

Egun aretan Bekaldunen moroiak emon eutsen txakuřei jatekoa ta txakuřak, eurak apurtxorik be, jateke, Miren Balendiñe'ri eroan eutsen guzti-guztia...! Andik aurera egunero txakuřak orixe egiten eben.

Laster oartu eban Bekaldunak txakuřak meartu egin yakozana. Eta aurerantzean inoiz baño obeto emoten eutsen jaten. Egun baten, txakuřak jatekoa nonora eruaten eben esan eutson Bekaldunari morroi batek. Txakuren atzetik leza baten sartu ta leza aretan neska gazte bat idoro eban, zulo odoletan.

Guzti-guztia adierazo eutson neskatileak eta Bekaldunak bere Jauregi'ra eroan eban zorigaiztoko neskea. Begi-begiko izan yakon Miren Balendiñe Bekaldunari ta bere semearekin ezkondu eban. Amar eguneko ezteguak ederki egin ebazan. Andik laster il ei-zan Bekolduna Aita. Bekaldun gaztea ostera, gudara yoan zan. Onen Amak begitan artuta eukan Miren Balendiñe; orduan asi ziran Eřegiña eřukařiaren zoritxařak.

Bekaldun gaztea gudara juan eta gerotxoago bikiak izan ebazan Miren Balendiñe'k. Biak ziran zein baño zein politagoak. Ama dongeak atan be eřegiñak ume ordez, txakuřkume bi izan ebazala adierazo eutson Bekaldunari. Txantxetan artu eban Bekaldunak amak iñotzona ta txakuřakumak ba-ziran be, bera etxeratu-arte ondo zaintzeko erantzun eutson.

Ama maltzuř arek baña Bekaldune'ren agindua gorde ta Eřegiña ta ume biak ilteko agindu ebala esan eutsen moroiei.

Morroion atsekabea! Maite-maite eben, izan be, Eřegiña. Juan ziran Miren Balendiñe ta umeekin. Eřegiña ta ume eřukařiak ilteko adorerik ez-ta Miren Balendiñe'ri sakel bi egin eutsozan soñekoan eta sakeletan umeak sartu ta, andik uřin, uřiñetara joateko esan eutsen.

Il ebezan bertan iru txakuř ta beronein biotzak eruan eutsozan Eřegiña zařari. Ziri edera sartu eutsen.

Biotz oneko mutil areik aldendu zirenean, Miren Balendiñe'k beronenganantza etozan gizon bi ikusi ebazen. Lařitu egin zan lenengotan, baita

baretu zan oraitiño. Gizon areik Josu Jauna ta Kepa Deuna ziran: orduan munduaren aldenik alden ebitzan eta.

Ondoratu yakon Josu Jauna ta ez eutson ezer galdetu Éregiña'ri, bazekiazan onen gora-berak eta. !Amaika gauza ezti ta alai esan eutsozan oraitiño berbaldi aretan! Ipuntzi eutsozan esku-ondo ikaragariak eta antxe bertan sortu yakozan Éregiña'ri atzamar bariak.

Jaso eban gero Josu Jaunak eskua ta baso baltz aretan jauregi eder bat urten zan lurpetik baratz ta guzti. Esne-emon egiten auntz polit bat, be, emon eutson Éregiña'ri eta alde egin eben Josu Jauna ta Kepa Deunak. Alde egitean baña, jauregitik egundo ez urteteko, jauregitik urten baizen azkar atzamarak jausiko yakozala-ta, esan eutson Josu'k Éregiña'ri.

Josu'k berberak ugutzau edo bataiatu ebazan Éregiña'ren ume biak. "Eguzkia" izena ezari eutson batari ta "Ilargia" besteari.

Alako batez, etxeratu zan Bakaldar eta aspaldi il zirala beriala esan eutzen. Éregiña ta ume biak. Naigabez josita, naigabea astu gura-edo besorik-baso asi zan lagun batekin. Gau ta egun ehizean ibilten zan.

Iluntze batez, baso baltz aundian bidea galdu eben. Argi bat ikusirik, araxe jo eben. Olantxe, Miren Balendiña'ren jauregi aurearagiño eldu ziran. Gau aretako ostatua eskatu eben eta bai emon be, Éregiña'k.

Andra gazteak beingoan ezagutu eban bere senarra; Bakaldarrak ez eban ezagutu baña bere emaztea.

Edarto apaldu ondoren lotara juan ziran. Nekatuta egozan gizonok eta laster lokartu ziran.

Artu ta Bakaldarraren oe-ondora eroan ebazan Éregiñak bere ume biak. Euren aita gizon au zala esan eutsen umeai eta ixil-ixilik eta polito-polito mosu egiteko. Eta polito-polito, lenengo batak eta gero besteak mosu emon eutsen eta alde eben irurak.

Bakaldar lo egoan eta Éregea ez eban ezer oartu. Bere laguna ez egoan lo ta dan-dana ikusi eban Bakaldarrari esan, be. bai. Eta urengo egunean, be, zeozeren azkikuluz lo egiten araxe juatea zirala bururatu yakien.

Esan eta egin. Lo bai legozan egin eben urengo gabean. Éregearen oe-aurean Éregiñak umeai mosu emon eragiten ziarduala, besotik eldu ta zertan ziarduan eta olan ibilteko zorzan galdetu eutson Bakaldarrak bizi-bizi.

Aritu zan Éregiña garkaria; seneratu zanean baña jazo yakon guzti-guztia esan eutson. Bakaldarri Jaun-Jauna'ri. Poztu zan Bakaldar Jauna ta aspaldi ildakotzat etsita eukazan andra maiteari ta semeai mosu ta mosu ekin eutsen.

Alkarekin etxera juan bear ebala esan eutson Bakaldarrak eta berealaxe juan, be; bere ama, be aspaldi ilazala ta lenagoko atsekabe guztiak aztuta atseginetan biziko zirala.

Josu Jauna-ren esanik ez eban aitatzen Érégiña'k, baña baso aretatik ez eban urten nai; jauregitik urten ezkero atzamaŕak jausiko ete-jakozan bildur zan. Éregearen esanetara baña makurtu zan eta Jauregi'tik urten zanekoxe jauzi yakozan atzamaŕak-odolik urteteka baña. (odolik barik)

Etxerantz zijoala gizon-aldra edo moltso lagun ikusi eben Mirén Balendiñe'ren ort-érian. Zer jazoten zan galdetu eben eta gizon batek eloŕi-arantzea sartu ta ezin atara ebala esan eutsoen.

Ba-doa Miren Balendiñe, atzamaŕik ez eukanik gomutau, be, egiteke ta -"Itxi neuri, neuk atarako dautsot eta" iñotsen danei.

-Ezingo dautsozu atara, iñok, be. ezin atara dautso ta....

-Eta zer...?

Ondoratu yakon gizonari, luzatu eutson eskua ta-egiazko arigarria!- ikutu orduko atzamaŕak urten eutsen, betirako urten, be.

Ber-bertantxe atara eutson eloŕi-arantzea gizonari eta orduan konturatu zan gizon a aita ebana.

Parkatu eutson aitari ta aitarekin eta guzti, danak, Jauregi'rantz jo eben. Antxe bizi izan ziran, ondo bizi, be, zaŕ-zaŕ egin arte.

## XX Kuiak edo Kalabazak

Oraindiño, aldi aretan, Euskal-Érian ebiltzan Josu Jauna ta Kepa Deuna.

Oŕ, Laburdi-aldean- edo kui bat buruan eta eskuan beste bat eroyazan andra bat idoro eben.

-Ostutakoak dira kui oŕeik Jauna; samea jokatuko neuke -esan eutson Kepa Deuna'k Josu'ri.

-Ago ixilik, Kepa; eztok olakorik esan. Ur utsa dok kuia; ez ekian ...

Iñoren kuia, artzea, be, soloetan aŕeratu ezkero aŕezkero ez ei-da lapuŕetea. Ura besterik ez ei-da ta!.

## XXI Zaspigaŕen agindua.

Euskal-érian aruntz-onuntz ebiltzan, beste bein, be, Josu Jauna ta Kepa Deuna. Íñok-eskuma, nagusi ta morroi, saltzale ta erosle, langile ta alpeŕ danddanak egiten ebela lapuŕetan ikusita asaŕe goŕian zan Kepa

-Lapurtzaŕ oŕei zigoŕ galanta emon bea-ŕ dautsezu Jauna...

-Ago ixilik Kepa, lapuŕak al-dozak ba, danok.

-Lapuŕak ez ta zer dira ba?

-Lapuŕ izateko zaspigaŕen agindua beaŕ yoek, eta aspaldi kendu yoen gizonak agindu ori. Orixegaitik ez dok izango auŕerantzean ez lapuŕetarik ez lapuŕik.

-Zuk ez dozu agindu ori kendu baña...

-Ori esan Kepa...! Gizonak gure edo ez, zoritxaŕez beti izango dozak zigoŕa merezi daben lapuŕak.

XXII Bardotze

Ludian yo batera ta jo bestera ebiltzanean Josu Jauna ta Kepa Deuna, eldu ziran egun batez neka-neka eginda Euskaleŕi'ko mugara ta bide bastaŕean jaŕi ziran biak.

Arnasa bete zanean, bastaŕei begiratu bat bota ta baŕiketan asi ziran.

-Zer egingo dogu toki au- esan eban Kepa'k.

-...? ez Euzkaldun, ez Gazkoniatar... Bardotze egingo yoago.

Zutundu ta Bardotze egin eben.

XXIII Miaŕitz'ko oxiña

Beste bein, ilun abaŕetan Josu Jauna ta Kepa Deuna Negrez-aldean, Miaŕitz'en-edo ziran. Etxe txiro bateko atea kask-kask jo eben eta gau arteko ourei aterperik emongo ete-eutsoen itandu eutsen.

Baietz ba, ta sartu ziran.

Jatekorik ba-ete-eben, aokadatxu bana baño ezpa-zan be, ... eutsen gero Josu Jauna'k.

Apurtxorik be ez eukela erantzun eutsen eŕukaŕi areik.

-Ikusi egizue oremaia?

-Bai Jauna, bai; zoritxaŕez ba-dakigu baña gure oremaiaren baŕi... Eta...!

Gain-gañerañoogiz beteta ikusi ebenean oremaia konkortu ziran.

Belaunbikotu egin ziran Josu Jauna'ren auŕean. Neka-neka eginda egozala, ... ta gau aretan lo egiteko oerik emongo ... itandu eutsen Josu Jauna'k.

-Oea, bai pozik be.... izarik ez daukogu baña!

-Daukazuen, ikusi egizu oraitoño....

-Ba-dakigu, bai, ... gure izaren baŕi

-Ikusi ...

Eta uste ez eben tokian egundoko izara-piluak idoro [redacted] eta aŕituta egozan.

-"Bastaŕ onetako etxe guztietan eskatu dogu gau onetako estalpea ta zeuok bakaŕik emon dauskuzue. Gauŕ-gabaz ikaragaŕizko buŕundadak entzungo dozuez, ez ikaratu baña. Emen ~~gaituzu gu~~ zaygo gara ta geuk zainduko zaitugu.

Eta oeratu egin ziran guztiak.

Gau aretan egundoko oñastu, trumoi ta lur-ikarak izan ziran. Euria [redacted] aizea zuŕunbiloka... Biaramonean inguru aretan ~~ez zan etxerik agiri.~~ Urak eroan ebazan etxe ta etxeko lagunak.

Josu Jauna ta Kepa Deuna artu ebezan etxeko etxe zartxoa bakaŕik agiri zan zutunik...

~~Alakoren batez~~ Noiz Negrez-aldera juaten ba-zara, an ikusiko dozue etxe ori, gau aretako ugaldeak egindako ~~oxinaren auŕean~~ aintzir ondoan dago.

## Irugaŕen zatia

## Ixterio Mixterio.

### I ~~Mezea~~ aŕigaŕia

Gau batez, goizaldera, goratxoagoko baso batetik argi bat ikusi eben Salbatoŕe'ko eleizan artzain batzuk.

Uŕengo gabean, be, auŕekoan lez argi bardiña ikusi eben... eta aste osoan ~~alantxe~~ ere.

Ikaratu egin ziran artzaiñak eta beste ~~ardi-laŕa~~ lare-toki batzuetara aldetea erabagi eben.

~~Ardi-baŕrutiok~~ Lare eder areik isteak, be, min emoten eutsen eta argia zer ete zan ikusi beaŕ eukiela, alkaŕi esaten asi ziran.

Txabolan beti izan oi-eben ur-onetsiagaz "Aitea'ren" egin, eŕosariok eta makila sendo bana artu eskuetan eta guztiak batera ~~abiatu~~ urten ziran goizalde batez.

~~Beti letz.~~ Laster ikusi eben argia ~~eta~~ betiko lez; euren arditxakuŕak ~~orduan~~ zaunka ta zaunka atzera egin eben.

Ez ziran gitxi bildurtu artzaiñak, be: danak batera auŕera egiteko alkaŕi eskuak emon eta auŕeratu egin ziran. Ikara-ikaraz, bidean iñor eta ezer be ikusteke eldu ziran eleiza-ondora ta beti lez eleizea itxita idoro eben. Polito-polito zeŕalu-zirrikitutik begiratzeko adorea baten batek... eta ikararen-ikaraz berbarik barik geratu zan. Aldarako argiak iziotuta, mezea emoteko jauntzita aldara-ondoan zutunik abade bat egoan.

Beti lez asi eban bere mezea "introibo ad altare Dei" eta zer iñoanik, be, ondo jakiteka artzain batek erantzun eutson ~~[illegible]~~ ateetik.

Eta artzaiñak "et cum spirituo tuo" edo "amen" erantzuten eutson ~~eta~~ la amaitu eban mezea abadeak, ez oŕaitiño artzaiñak nai baizen azkaŕ.

Mezea amaitu ebanean ate-ondoruntz egin eban abadeak. Poz-pozik etoŕan. "Eskerrik asko gizon on oŕei, zarianak zariela. Ainbeste urtetan meza au noz esango zain nintzan: auxe esan beaŕ neban, zeruetan sartzeko-ta [illegible] ~~[illegible]~~. Eskerrik asko bariro, be. Ez zaituet aztuko ~~[illegible]~~." Eta ori esan ondoren aldegin eban abadeak.

~~Sekulako bildotsak~~ Bildots izugaŕi ederak jaio ei-yakozan urte aretan gure artzaiñei. Eta toki aretan bertan ~~ez baña~~, biaramonean aldatu egin ei-ebezan, bai ardi-laŕak.

### II Salbatoŕe'ko kandeŕera

~~Orain aspaldi~~ Aspaldi baten, ~~orain~~ zortzireun edo bederatzireun urtez auretik "Loibaŕi" ta "Mikelaberó" beste etxerik ez ei-zan Mendibe'n.

Egun batez Loibaŕi'ko ~~[illegible]~~ nesk... bei batzuen ondoren Galarbe'ko oxiñara

juan zan. Aruntz onuntz ebilela, Basa-andra bat ikusi eban aitz-zulo batean, gaur Salbatoře'ko eleizan dagoan kandelera garbituta, urezko orazziagaz orazten.

Eguzkiak lez argi egiten eban kandelera, eskatu eutson gure mutilak Basa-Andreari. (Basa-Andreak ezetz) eskatu ta eskatu, eskuratu eban oraitiño kandeleroi, gure mutilak eta eskuratu ondoren, alde egin eban Salbatoře'ko eleizarantz ta kandelera Salbatoře'ko eleizarako izango ebala bururatu yakon. Basa-Andreari Asi zan mutilaren ondoren diadarka ta garasika. Diadar ta garasiak entzunda agertu zan Basa-Jauna, ta mutilaren atzetik antxitxiketan asi zan bera be.

Mutilak orduan bereak egin ebala uste eban. Alako batez baña ito -agiñean eldu zan Salbatoře'ra. "Salbatoře Deuna, Zeuretzat nekarran-diño diadarka- Jauna, eruki zakidaz!". Eta beingoan, eleizako kanpaiak jo ta jo asi ziran tořeko eskilak. Basa-jauna ta Basa-Andrea bat-batera geratu ziran eta Basa-jaunak diadarka-" eskil zar ori jo ta jo asi dalako ago bizirik....- iñotson- urengo barauterik arapatuten autenean egin dok iriak".

Andik egun gitxiren buruan mendira yoan dua bariro, be, gure mutila. Aurerantzean gari joten jardun eban. Bat-batez okerane batean, Basa-Jauna agertu yakon. Ikaratu zan gure mutila ta buruazka asi zan bereak egin ebala uste-ta. Ule-artean baña bi edo iru gari-garau idoro ebazan eta "krask" aoan gari-aleok sartu ta ausi eban baraua.

Alde egin eban orduan Basa-Jaunak eta arezkero ez da agertu. Egundo baraurik ez da juan oraitiño mendira gure mutila.
7 4 5 8 3 9 1 2 6

Loibaře'ko mutilak esandakoa bete eban. Salbatoře'ko baseleizara eroan ebala kandelera ta bertan dago, baña Sindiño an dago. Ezpa baizen edara ez dau emoten baña. Españarak biritan eře eben eleizea ta baltz -baltz eginda dago orain. Erira ekartea izan eben orduan Mendibetarak. Aritz-kurutzeta'ko bizkařetik beragoko ezin ekari al-izan dabe egundo. Buztari bi bei lotuta, be, bein baño geiagotan egin izan dabez alegiñak, eta alperik beti.

Salbatoře eleizan dago, arezkero ta egongo, be, aurerantzean bertan egongo da.

Xaindia[1]

III

Aintxina-aintxina, arto-zuritzen ziarduen iluntze batez Bitiña Iñuria'n.

Bat-batera aitzuriotxa soloan astu yakola bururatu yakon mutilari; eta arto-malestoa zatitzeko igitaia bear... eta solotik igitara ekar-tearen amar semaiko pozik emongo leukezala, diadar egin eban.

Etxeko umeak-neskatila gaztetxoak- diruaren berak ekariko eutsola dirautso ta juan zan bila.

[1] Deitzea

Neskatxoa kanpora zanean amar semeikoak eskiñia damutu yakon mutilari, aokadaka asirik- "[illegible] eroango al-au" diñotso neskatxoari.

Beste barik garasi bat entzun eben urinean eta gerotxuago Iñuria'ko tximini-ondoan-zear, zoritxareko neskatxoa aidean daroa norbaitek. Eta iraitzean kebidetik eskatzera igitaia jaurti ta "ora -diño- zuen igitaia! Eta ni, nire diru-gosea-bide, [illegible] okerak artu ta egaz narua.

Iñuritar ta auzoko guztiak garasika neska erukariaren ondoren asi ziran. Arnas-estuka Larzabal'eragiño eldu ziran eta ito-agiñean antxe geratu ziran.

Larzabal'en baña Larzabaldarak ekin eutsen umeari jaraitu naiean.

Aurera ta aurera yoan umea, beti aidean (egaz) Mendibe'tik aratzatxoago' Salbatore [illegible] eldu ziran. Neskatxoak eleiza deuna ikusi ebanean "Salbatore Deuna, aren eruki!- diadar egin eban.

Eta itz-ba oneik esan ebazanean, itxi eutsen [illegible] eta apurka-apurka lureratu zan.

IV Tartalo.

Iru seme ebazan ama batek. Bein batez seme oneik- "Ama!- diñotse -dirubila goaz ta emon-eguzu ogia". Amak emon eutsoezan opilak eta- "mutilak - diñotsoe emotean- gizon bizar-gorien moroi ez zaitez egin egundo be". Eta ba'doaz iru semeok.

Ibili ta ibili ba-duaz aurera. Bizar-gori bat idoro eben bat-batera eta bizar-goriak beronen moroi izatea nai izango ete-eban itandu eutsen lenengo mutilari. Ezetz onek. Bigarenari, be, galdetu eutson eta ezetz onek, be.

Irugarenari, be, galdetu eutson; eta onek "Ikusi egingo yoat ezer jaztordan" iñean bere kolkorako ta baietz erantzun eutson.

Bayoazan nagusia ta mutila eta nagusiak auxe esan eutson moroiari "Gure biotakoren batek iñoz zer-esanik izango ba'leu, lepoko narutik zapata pare bat egiteko-aña naru emon bekio besteari".

Bereala "Oa mendira - dirautso nagusiak-egurik zuzenekaz egindako egur-txorta bat ekari egidak". Ba-doa mendira; sagar-mustegi gazte baten sartu ta sagar-ondo zuzen-zuzenekin egin eban txortea. Txortea etxera ebanean: "Ona emen egur-txorta, Jauna. Ezer esatekorik bai-al-dozu?- Ezer be ez. Ondo vagok". Ez, ez. Ondo baño obeto egin dok.

Basora bialdu eban, bariro be; egur-okeretara baña. Okerenak ekarteko agindu eutson.

Ba-doa mendira mastira. Iñausi eban mastioi ta aienik okerenakaz egin eban bere txortea ta juan zan etxera. "Emen, jauna. Ezer esatekorik bai-al-dozu?"

-Ez, ez! Ondo vagok.

Oraingoan txaŕi-zain bialdu eban (mendira) basora.

Baso aretako Tartalo'k mutiloa irauntziko ebalakoan kontieu.

Basorakoan mutilak txori bizi bat, gaztaia ta ari-aildua artu ebazan sakelean, eta juan zan.

Eta Tartaloa etoŕi yakon ta esan eutson mutilari.

-"Indaŕik edo ba-dok?"-

-"Indaŕa...?- dirautso mutilak aŕia nik uŕiñago jaurti egingo daustak".

Baietz Tartalo'k eta jaurti eban aŕia, uŕin-uŕin atan, be.

Mutilak orduan, aŕia bai'litzan, txoria bota eban eta aŕia baño askoz uŕingo juan zan. Eta beingoan Tartalo'ri "atzera nai dok orain aŕia jaurti ta nik apurtuago egin?"- esan eutson.

Baietz Tartalo'k eta: jaurti ta zati-zati egin eban Tartalo'k aŕia.

Mutilak baña, aŕi ordez gaztaia artu eban eta bota eban: mila zatitan gitxiena apurtu zan. Eta orduan ostera, be, mutilak Tartalori-"baso onetako zugatzak nik azkaŕago ipurditik atara egingo daustat-" esan eutson. Baietz Tartalo'k eta banan-banan zirti-zarta ipurditik ataraten asi zan.

Gure mutila, kolkoan ekaŕan ari-ailduagaz basoko zugatz guztiak inguratzen asi zan eta Tartalok-"zertan diarduk?-" itandu eutson.

-"Zer uste dok ba? Ik lez nik, be, banan-banan atarako dodazala? Ez, dan-danak batera nik,-" erantzun eutson mutilak.

Tartalo ikaratuta: "geiago az, geiago az" oŕuka asi zan.

Bitartean bien txaŕi edo urde-taldeak alkaŕegaz nastu egin ziran baña, -ta ezin banatuta ebiltzan biak. Bakotzak bereak ezin ezagutu al ebazan eta mutilak "-Tartalo! guzti oneik neuriak dozak- esan eutson-ezagun-eŕezak dozak, ba. niriak: belaŕi biña ta buztan bana yoek nireak eta guzti oneik beleŕi biña ta buztan bana yaukezek". Eta orduan txaŕi guztiak artu ebazan beretzat mutilak.

Baso-sakonetan edo ete-ziran bere txaŕiak, badoa Tartalo, be, txaŕi-biļa. Eta txaŕi-bila ebilala, txaŕi bat il eban mutilak eta txaŕi-esteak kolkoan gorde ebazan, eta Tartalo'ren bilduŕez, arin -aringa iges egin eban. Arnas-estuka yoan eta basotik urteterakoan izara-garbitzale beten ondotik igarotean, txaŕi esteak oŕen alboan itxi-ta-"azkaŕago juan nadin, ona emen nire esteak" esan eutson izara -garbitzaleari.

Ez eban txaŕirik idoro Tartalo'k eta gazte arek ziria sartu eutsona ezaguturik, an zan bereala Tartalo, mutil gaztearen ondoren. Eta-txaŕi -zaiñak oraintxu ikusi-ete-eban galdetu eutson zapi-garbitzaleari.

-"Bai, oraintxe igaro da emendik; bere ~~tripak~~ estuak ementxe itxi dauz azkarago juango zala-ta".

Morroi gaztea baizen, azkar juan eltzan eitean, aizto aundi bat artuta, atara euzan bere tripak Tartalo'k, be, orduan. Eta oinkada bi emoteke bertan jausi ta il ~~zan~~ egin zan.

Ba-doya morroi gaztea bere txari guztiak aurean artuta. Iru edo lau ez besteak egun aretantxe saldu ebazan.

Iru edo lau txari biziak eta saldutako guztien buztanak basea ta zikiña besterik ez egoan oxin aundi baten sartu ebazan eta ba-doya bere nagusi bizar-goriarengana ta "oxinean sartu yataz txariak, jauna, ta ito-orduko atara dagidazan, zatoz laguntzera" diñotso.

Oxin-ondora eldu ziran. Saldutako txarien buztanak nun sartu ebazan ba-ekian mutilak, eta buztan areik egozan lekura eroan eta buztan ~~areik oltzeko~~ areiri orataiko esan eutson nagusiari. Ekin eutsen biak lanean...

Nagusiak buztan-utsak ataraten ~~euzan~~ ebazan, ~~baña mutilak aurez nun egozan ondo ekiazan txari osoak estera~~ morroiak baña, ba-zekian nun egozan txariak eta txari osoak atara ebazan.

Morroiak orduan "onetan atarako dozuz, jauna" iñotsan nagusiari: ugazabak, baña buztan-utsak ataraten ebazan.

Azkenerako asaratu egin zan ugazaba, zital-zital egin zan. "Asare zara, nagusi?.

-Bai asare-asare naz...."

Eldu eutson orduan moroiak eta ~~bike orkia~~ orki biko bat ~~pare bat zapata~~ egiteko-aña naru kendu eutson lepotik.

Arezkero aberats-aberats, ezin uraturiko oñetakoak jantzita dabil gure morroia. Joan dan astean ikusi neban azkenengoz Pinodieta-egian.

## V Axko ta aren lagun biak.

Or, Nabara-aldean sendi txiro-txiro bat bizi zan. Egun batez, etxean egurik ez ta aita ta alabea zama bana egur ekarten mendira juan ziran.

Zamea lenengo egiten ebanak aurrelik bizentatuko toki baten besteari itxaroteko alka'ri esan eta ~~bakotxa toki banatatik~~ nor bere tokitik juan ziran.

Ikaragariak ziran orduko basoak!

Neskatileari, zamea egin ebazanerko, ~~eta basotik urtoterakoan~~ Basa-Jauna etori ~~yakon~~ jatkon basotik; oratu ta lurpean beretzat eginda eukan bizitokira eroan eban neskatilea. Nok esan neskatilearen ikara ta alabea galdu yakoen gurasoen samiña!

Egunak juan eta egunak etori, Basa-Jauna'ren leza-zuloan "Axko" jaio zan. Ume sendoagorik egundo! Gorpuz guztia ulez ~~edo bizarez~~ estalduta eukan. Oñeko bearik ez eukan.

Urteetan lurpetik urteteke egon ziran ama-semeak. ~~Bete ebazan~~ ba-ebezan sazpi urte umeak. Egun batez Baso-Jauna nora juaten zan ikusi ~~gura~~ eban Axko'k eta igoti eta igoti eldu zan alako batez leza-atakaragiño.

Atakako aŕi-zirkilutik argi edeŕ-edeŕa ikusi eban . Argi ikusgaŕiak ikaratuta, (atzera jatxi) ta ba-dua amari ikusitakoaren baŕi emoteko. Ama eŕukaŕiak bilduŕez:"ez eban aŕirik aldatuko baña?- dirautso-aitak olakorik jakingo ba'leyok galduak gindukezan!"

Ez eukiteko ezeren kezkarik ~~diñotson orduan umeak.~~ esan ~~ordukoxe~~ an zan Baso-Jauna ta asaŕe ~~ta~~ kamar- "Zuek zirkiñik eragin al-ete -dautsozue atakako aŕiari? ~~-diñotsoe.~~

-Ezetz; eurak ezetz; (baretu ~~zan~~ Baso-Jauna, ta alde eban andik.

Ikusi eban argiaren maitez-eŕeta, ~~andik juan egin beaŕ ebala diñotso~~ amari ~~semeak~~.

-Atakako aŕia nok kenduko yok baña?

-Neuk ama.

-Bai, ama, bai, kenduko dot; ez neutsun esan baña ~~apo-apuan~~ or-or erabili neban lengo egunean, be. Ba-doa, zuloan-gora. Bere esku [illegible] eldu eutson Axko'k aŕiari ta zutundu eban. Gero bilin-bolanka ~~mendian-bera~~ jaurti eban.

Ikaragaŕizko oldaŕ[illegible] aŕia ta auŕean artzen eban guztia apurtzen eban.

~~Zapaŕada aundi areik~~ Aizbetteko zaratea entzun ebanean, bere lezaatakako aŕia jaurti ete-eben kezkatan sartu zan Baso Jauna. Eta, gero, Axko'ren lana ikusirik, ama-semeen ondoren asi zan.

Eŕira eldu-egiñean Baso Jauna ondoren etorkiela oartu eban amak eta zer egin eban? Egiñalako gaŕasi samiñak egiten asi zan... Gaŕasi areik entzunik [illegible] bat uŕean zala-ta eŕiko atabal eta eskilak jo ta jo azi ziran zalapartaka ta ots oŕeik (entzun ebazanean Baso-Jaunak) iges egin eban eta inguru areik bein betiko laga ebazan.

Eŕira dira ama-semeak. Ama eŕukaŕi aren poza! Dan-danak ikaratuta ~~umeari begira doguz.~~ Orduko zortzi urte ~~ebazan~~. Jantzi eban amak eta ~~Axko~~ ikastolara osteraka asi zan.

~~Mutil koskoŕ itzusi a zer "demontre" izan ete-eikean mira eginda egozan lenengo egunetan ume guztiak.~~ Jantzi artetik egundoko ule luzeak agiri jakozan. Gero ~~Axko~~ ~~tartekotu~~ zanean, batat alde batetik eta besteak bestetik uletatik tiraka asi yakozan. Egun batzuetan jazan al-izan ebazan Axko'k. Gogait egin eban baña, gure Axko'k eta egun batez auxe esan eutson amari: -"~~Pastor dariuen ume batzuk~~, uleetatik tiraka ta tira egiten dauste, ~~ama~~. Egunen baten ~~ordiak neuk ilgo dodaz~~, baña.!"

-"Ez gero ~~aŕi~~ olakorik egin-"

Biaramonean ba-doa bariro, be, ikastolara. Asi yakozan ziri-mirika, beste egunetan baño okeřago.

Zitaldu yakon gure Axko'ri eldu eutson gaři-gařitik batari ta berakin jo bata ta jo bestea..... garasirak! Batzuk il bestebatzuk zauritu egin ebazan; irakasleak leiotik iges egin eban; Axko ikastolan ez zan ařezkero sartu.

Etxean urte batzuk egin ondoren, diru-bila juan gura ebala ta makila sendo-sendo bat ekaři egiola esan eutson amari egun batez. Kintal bi inguru zan makilea eruan eutsen, arinegia zan baña a. Amabi kintaleko ekaři eutsen gero. Eskuetan artu eban eta Eta or doa makilea astinduaz.

Ba-uan eta bidean auřez-auře gizon bat idoro eban: "Agur adizkide!" -"Agur zuri be".- Gizon indartsua zu, makilea ořetara erabili al-izateko..!"

-"Bai, indař apurbat..... Ez da ořen astuna makila au; amabi kintal inguru ditu."

-"Bai, Ni, be, sendoa nozu. izango ba'neu zintzeginda jaurtiko zindukedaz . Beste aritz-ondo ori botatea baña".

Eta sudur-zulo bata zintz egin eban eta "krak" or doa gora tanta.

Aren sendoa zana ikusita diru-bila la-ta alkařekin juango ziran galdetu eutson Axko'k.

Besteak baietz arekin pozik juango.

Ba zan, biak. Eta alai juan, be. Auřeratxoago eřota-ařia ta obako aundi-aundi batzuekin obaj jokuan jarduan gizon bat idoro eben- "Agur adizkide" -"Agur zuei, be." Alkařekin bařiketan jardun ostean -"gurekin etoři bear dozu zuk, bere.- diñotso Axkok- gurekin etorteko gizon egokia dinodizuzu."

-"Nora zuaz ba..."

-"Diru egiten".

-Bai, bai, pozik etoriko naz.."

Ořa, oř, Axko ta bere lagunak dirua egin naian...

Ibilalditxo bat egin ebenean gosetu, be, egin ziran eta, ardi -txabola bat ikusi eben eta araxe jo eben. Ardietakoa egiten jarduan artzain bat idoro eben.

-"Agur, adizkide!"- "Agur, zuei, be, Jaun ořei!"

Alkar agurtu eben, bařiketabako gogorik ez ei-eukien baña ta, gosearen-gosez txarto egozala-ta, jatekorik ete-eukan galdetu eutsoen artzañari.

-"Gauza aundirik ezaŕen, eŕotatik oraintxe ekaŕita daukat arto-zoŕoa ta nai ba-dozue talo batzuk egindo dodaz".

-"Baietz, pozik".

Asi zan artzain emaztea talo-giñan. Onek egin eta besteak jan, amasazpi talo jan ei-eutsezan; aŕituta egoan artzaiña.

Ase ziranean diru-egiten urten ebela ta eŕetzen nun egin eta-eikean galdetu eutson Axko'k artzaiñari.

Aindixeik beratxoago jatsi da atearte aundidun inguru-guztia burdinsarez inguratuta dagoan jauregi ikusgaŕi bat ikusiko ebela esan eutson artzaiñak.- "Egundo ez da baña an iñor saŕtu izan: egoten dirala jakin egizue. Zuen-eduko gizon gitxi dira baña nire ustez ta jauregi-jabe iñor egitekotan, zeuek egingo zarala iduritzen yat".

Ba-duaz, ba, gure iru gizonak.

Artzaiñak esan eutsoen lez, zana zalako jauregi-suŕera ziran. Zelan sartu asmetan egon ziran. Sur-Aize'k ekin eutson lenen; alpeŕik baña.

Astindu edeŕa emon eutson atadiko ateari, baña ateak zutunik geratu zan atea.

"Oba-jokalari'ren txandea da orain. Artu ta jaurti eban tsitaka emon-alako indaŕagaz, eŕota-aŕia. Orma-zati bat bota eban luŕera; sartu al-izateko-aña ez baña.

Axko'ren txandea da. Indaŕ aundiagoa palankeari ogei-pauso edo urats inguru, atzeratu zan. Indar guztiagaz jaurti eban palanka zakaŕa..... ta "brau" luŕera ziran ateak!

Irurak sartu ziran baŕura. Ez zan iñor agiri. Batera begiratu ta bestea ikusi ebiltzan. Nun-nai, uŕez betetako zakuak agiri ziran. Ba-doaz eskaratzera ta, an, bost-sei lapiko sutan: batean oloa, bestean atea edo paitea, beste batean olaskoa, zertzuk gauza egozan nik ez dakit. Azkenean maian jaiñi eben. Eta amasazpi talo jan ebezanik igaŕi, be, egiteke, asi ziran baskaltzen eta jan eta jan Jaungoikoa'k daki areik zer eben. Aŕatsaldea maitik jagiteke juan yakoen.

Baŕiketan egonaldi bat egin ondoren, bakotxak bere lo-gelea aukeratu bear ebala-ta, abiatu ziran. Alan bazkaldu ondoren oe-zuri edeŕean lo egitea eldu yatorkoen! Arein poza! Bere-biziko gaba igaro eben.

Biaramonean zortzirak inguruan jagi ziran. Jana ipiñi egian etxean Sur-Aize geratu zan eta beste biak eizara juan ziran. Eizetik noz etoŕi Sur-Aize'k txiliñagaz, adierazoko eutsen.

Egundoko bazkaririk onena ipinteko asmoz, asi zan Sur-Aize bere zeregiñetan.

Amaŕak inguruan "dan, "dan", "dan" noz-edo-noz atean. Ba-dua ta Eskeko zaŕ bat zan. "Zaŕast" ebagi ta ogi zati bat emon eutson. Eskuetatik iges egin bai leutson, luŕera jausten itxi eutson ogiari eskekoak. Eskekoaren eŕukiz uŕeratu ta baŕiro emoteko makurtu zan Sur-Aize. Makurtu zanean, "brau" jauzi edo salto egin eutson, gañera deabruak. Biak zein-geiakoka apur batez ibili ondoren Sur-Aize menderatu eban deabruak. Sudur-Aize'n eskuetatik aiztoa artu ta txiki -txiki egin eban deabruak, ta lapikoan sartu eban gero. Aldendu zan gero. Ordubiak-inguruan

Gosetu ziranaren txiliñik ez eben entzuten gure eiztariak eta zer jazo ete-zan jakiteko asmoz etxeratu ziran.

Iñun ez zan agiri gizonik: begiratu eben lapikoetara ta ?zer dakuse? Zati-zati egindà euren laguna! Ilà berbizteko almena eban Axko'k baña. Arduraz zati edo atal guztiak batu ta, miiikeri edo ziri batzuk egin ondoren, oŕa oŕ bizirik gure ildakoa. Zutundu zan Sur-Aize, eta jazo yakona esan eutsoen bere lagunei.

Biaramonean "Oba-jokolaŕiari" yagokon jatekoa ipintea.

Eta oŕi, be, orixe-berori jazo yakon.

Txiliñik ez eben entzuten eta gosez berandu etsita etxera ziran. Orduko topiñean sartuta irakiten egoan gure "Oba-jokalaŕia"! Berbiztu eban au, be, Axko'k.

Oraingoan etxean jotea Axko'ri yagokon. Bere lagunak Axko bakaŕik etxean isterik ez eben gura izan. Atan, be, Axko ilten ba-eban, nok berbiztu ei eban? Ezetariko bilduŕik barik nasai uazala esan eutsoen Axko'k.

Betiko sasoien ate-otsa "dan, dan, dan". Badoa Axko. Beste egunetako eskeko zaŕa zan baŕiro, be. Ogi-zati ederra artu eta "eutsi adizkide" diñotso txantxetan. Luŕera jausten itxi eutson eskekoak ogiari ta aŕen jaso egiteko eskatu eutson Axko'ri. Betoskoa' Axko'k: "...ogi-beara baldin ba-dozu, zeuk be, jasoko dozu" erantzun eutson Axko'k eta ba-dua beronen eskuartekoak egiten.

Atzetik etoŕita eutson deabru zaŕak baña. Ez alpeŕik. Axko besteak lez ezin dau menderatu. Buŕukaldi gogoŕa egin ostean, Axko geiago zala etsita, ke-bidean gora igesi asi zan. Artu eban Axko'k orduan bere palankea ta sartu eutsan deabruak eta zatitu eban. Gero txistu-joka eskulanak egiten ekin eutson, bazkaria sasoirako ipiñi nairik. Bazkaria ipiñi-agiñean eukan, gaubeko ordulariari begiratu eutson eta- "amabiak ...! Aŕek onera orduko sasoia.. .!" esan eban bere kolkorako. Eta "txilin-txalan", "txilin-txalan" txiliña joten ekin eutson.

Eiztariak alkaŕi begira zer asmau, be, ez ekien. Zer jazoten ete-zan ikusi bear ebela-ta ba-duaz len-bai-len. Maia ipiñita saldea ataraten jarduan Axko'k.

-"Eskekorik gaur ez daketoŕi ala?

-"Gizon koldar txatxaŕ arek zelan menderatu al-izan zinduzan ez

dakit nik. Jaŕi ta jan egizue patxadaz. Geiago ez dautzue miñik egongo areik. Batatzerantz jaurti dot eta oŕ da!" Eta bazkaritan jazo yakon danaren baŕi emon eutsoen.

Batek jatekoa ipiñi ta besteak eizan-egin, olantxe bizi izan ziran egun batzuetan. Ikusteko euken baña etxe guzti-guztia oraindiño ta bastaŕei begira asi ziran. Ganbarara ziranean bizaŕaun amabi gizon zaŕ idoro ebezan mai-inguruan jaŕita! Danak garbitu beaŕ ebezala ta ba-duaz Akko ta "Oba-jokalari" euron tresna-billa. Sur-Aize zinka, "Oba-jokalarik" eŕota-aŕiagaz ta Akko palankeagaz asi ziran eta denpora baño len garbitu ebezan amabi deabru zaŕak. Arezkero eurena zan jauregia. Egundo iñor ikusteke laster gogait egin eben an, be eŕira juan beaŕ ebela bururatu jakoen.

Bina edo iruna uŕe-zaku artu ebezan eta mendiko artzaiñari, be, amabi mila laurleko emon ondoren, aberats-aberats eginda diru-piluekin ba-duaz euren eŕira gure gizonok.

Baŕi onek zer-esan aundiak atara ebazan euren eŕietan eta inguru-koeten, be.

Eŕiko abade ta beste agintarien esanaz edo aolkuz ezkondu ziran.

Ondo bizi izan ba-ziran, ondo il, be, egin.

## VI Bakaldua, topiña ta txistua.

Bein batez deabrudun gizon bat ei-zan. Bakaldunaren lagun zala ta eŕegea noz-nai etorten yakon etxera.

Bakaldua etorteko zan egun batez-"bakalduak eldu dadineko gauza miragaŕiren bat egin beaŕ genduke-" esan eutson bere andreari. Baietz, andreak, beronek be. ... ebala. Zer egingo asmetan azi ziran andra-gizonok; oŕelako buru austetan zirala, eldu zan bakaldua bere andrearekin. Ezer asmatake ta ezer egin al-izateko astirik barik, auxe bururatu yakon gure gizon oŕi: sutan gaŕ, gaŕ, gaŕ irakitan egoan topiña artu ta eskaratz-erdi-erdian ipiñi ta sua amatatu. Egin eban egitekoi.

Sartu ziran bakaldua ta eŕegiña.

"Agur", eta "Bai zuei, be" eta bereala ikusi eban eŕegeak topiña, ta eskaratz erdian topin a irakitan zetarako zan galdetu eutsoen. Egunoro eskaratz erdian lapikokoa surik barik egiten eban bere-biziko topiña zala a, esan eutson gure bakaldun-lagunak. Ez eban siñestu Bakaldunak: topin-ondora eroan eban gure gizonak eta tapea jasota erakutsi eutson ... pil-pil irakitan topiña.

Orduan siñestu eban eta aŕen saldu egiola eskatu eutson Bakaldunak. Topin axe zala euron guzti-guztia ta topin a barik bizi ezingo zirala ta ez saltzea ... leukela erantzun eutson gizonak ... alik-eta egokien. Eta Bakaldunak baŕiro, ezeren-beaŕik ez ebela izango, nai-eben-aña diru emongo eutsela ta aŕen saltzeko. Eta azkenean gure gizonak gogoz-bestera lez baña saldu eutson topiña.

Topiña eskuetan artu ta Bakoldunze ta Éregiña ba-duaz etxera. Etxera ziranean mořoi edo otseiñengana jo eben eta euroi topiña emon ostean, bear ziran janariak sartu ta lapikokoa surik barik berta bautzan egingo ebela ta topiñoi eskaratz erdian isteko esan eutsoen mořoiai Bakoldunek.

Baietz, mořoiak, pozik egingo ebela!

Biaramonean janariak sartu topiñan ta itxi eben eskaratz erdian topiñoi. Mořoiak bakotxak bere zeregiñetara alde eben.

Eguerdi-auřetxian begiratu eutsen topiñari mořoiak eta eurok itxi eben lez apuřik be irakiteke egozan lapikokoak. Topinaren baří jakitera Bakoldunzea noz etořiko ikaratuta alkaři begira egozan mořoiok.. Bere lagunak ziria sartu eutsona ikusi ebanean Egunde inos asařatu izan ba-da, Bakoldunne ašařetu zan lagunaki.

Gure gizona, be, ez egoan nasai-nasai, zer egin eban ba-ekian eta.

Euronak egin ebala-iñotsan emaztearí-, biaramonean Bakoldun etořiko yakoela ta arek emongo eutsozala emotekoak.

Bat-batera"ez, entzun egidan - esan eutzon senariak emazteari- ba-yakianat zer egin; biař bakoldun etoři orduko ik bularetan zako bat, ardo ipiñiko don eta bakoldua, agirika asitako an, zuri zeuk sartu daustanala ziria esango yunat, ik ezeř esan ez ba'eustanan ez nebala olakorik egingo; orduan asařetu ginoz non eta iri bulařean sartuko bai'neuskin, zatoan sartuko daustazet aiztoa ta ila bai intzanan, jausiko az. Eta gero txistu onegaz berbiztu egingo aunatala siñestu-arazoko yautzonat bakoldunari eta lenengo txistua entzundakoan anka batari zirkin eragin, bigařenez jotakoan besteari ta irugařenez jotakoan jagiko az".

-"Bai, bai, ori egingo yuat eta agian ez gaitak zigortuko Bakoldunzak".

Oneik uste ebenez biaramonean zital-zital eginda etoři yakoen eřegea. Etxera sartu zanekoxe asi zan gizon eřukařiari agirika: topin aregaz ziria sartu eutsola, ta bakoldunen lapikoak arela baře egiten zan!.. Esan eta esan orduan Bakoldunzak.

Orduan baita zala-ta asařetu egin yakon gure gizonari, be; emaztearen eřua zala ta sututa, aiztoa sartu eutson andreari bulařean. Andra eřukeřia ila bai litzan jausi zan... Ikaratu zan Bakoldun ta zer egin eban? alakorik ez zala egin beař iñotsan guztiz minberatuta Bakoldunzak.

Berak ba-eban txistu, bategaz emaztea berbiztuko ebala esan eutzon orduan gure gizonak.

-"Txistu orregaz berbiztu zuk...? Ez dot siñesten".

-"Ez, dozu siñesten? Laster ikusiko dozu."

Gure gizonak artu ta lenengoz txistua jo eban. Emaztearen lenengo zirkin eragin eutson istar batari; bigařenez beste istari, ta irugařen txistua jo ebanean zutundu egin zan.

Alako txistua ikusita konkortuta egoan Eřegea; ařen saldu egiola-iñotson

gizonari. Ezetan, be, ezetz gure gizonak; ordurarte, be, ez-beaŕik asko izan eballa ta ez eutsola salduko. ez eutson bakerik emoten baña; gura eban-aña diru eskatzeko ta emongo eutsola, aŕen saltzeko ta saltzeko. Azkenean oŕaitiño, saldu eutson txistulari, diru -askotan eta juan zan etxera.

Biaramonean kalera ziran Eŕegiña 'keeta uriaren erdira ziranean, aiztoa sartu eutson bulaŕean eŕegiñari ta Eŕegiña eŕukaŕia ilda jausi zan.

Dan-danak konkortuta egozan. Ez laŕitzeko berak berbiztuko ebala-ta, iñotsoen Eŕegeak. Atara ta jo eban txistulari; eŕegiñak zirkiñik, ez eban egiten baña; jo eban baŕiro, be, ta orduan, be. ikararik ez. Jo ta jo asi zanaŕen alpeŕik zala etsi ta eŕegiña bene-benetan ilda egoana ikusi eban. Zeuek, be, ba-dakizue zelakoa izango zan eŕegea'ren samiña.

Baŕiro, be, beste ziriren bat sartuko eta eutson kezkaz ez eban juan gizonaren etxera. Eta gizona zaku baten sartuta, uretara jaurti egiela agindu eutsoen bere morroiei. Juan ziran. Eŕegeak esan eutsoenez zaku aundian sartu ta ur-aundi-une bateruntz daroaduaz.

Bidean zala, zakua atadian itxi ta, sartu ziran ostatu batera.

Ostatu baŕuan oneik edaten ziarduenartean, zakubaŕuan zanak, norbait uŕeratu zana somatuta -ez dot nai! ez dot nai!- diadarka asi zan. Bidaztia ondoratu yakon eta ?zer ez eban nai ba?" itandu eutson. Eta baŕukoak "Eŕegearen alabearekin ezkondu gura nabe, Nik ez dot nai baña ta uretara jauŕtiko nabe-"

-"Gizona, baietz esatea oba dozu"- dirautso.

Arek, ostera, ezetz ta ezetz.

-"Nik baietz esango neuke ba! Gura dozu zure ordez neu sartzea?" diñotso orduan bidaztiak.

-"Bai, bai-dirautso gure gizonak-bereala sartu zadi".

Esan eta egin.

Zakuan sartu zan gizona, artzaiña zan eta aren artaldea artu ta ba-uan gure gizonau.

Beronen Ardiak bidean zeaŕ yoala, bat-egin eban eta onek aŕituta- "nundik atoŕ?"- itandu eutson.

-"Nundik matoŕan? Itxasotik... Ez al-ninduzun, ba, zeuk ara jaurti?"

-Bai, baña andik ez dok iñor atzera etorten, eta i ez az an izan!",

-Andixeik nator ba, Jauna ta ardi oneik be angoxeak dodaz. Eta siñesten ez ba-dozu, zatoz neurekin ta ikusiko dozu; ni izan ezkero besteren batzuk, be, an dira.

Itxasbazteŕera zan eŕegea ta oraintsu botatako artzain eŕukaŕia zalapartaka ito-aginean uretan ikusi eban.

Eta Eŕegeak gure gizonari -"ori oŕaitiño ez dok atzera etoŕi"- diñotso.

-Ez, ardirik edeŕenak aukeratzen diardu ta nire artaldea lakoa nai ba-dozu zabiltz azkar zu, be".

Eta orduan jauzi egin Eŕegeak, be, uretara ta an ito zan.

VII Artzaiña Bakaldun

Aintxiña-aintxiña gaixorik (txarto) zan Bakaldunaren alabea. España, England, France ta alde guztietako sendagileak eruan ei-eutsozan, baña iñok ezin osatu! Geroago ta txartoago zan Bakaldunaren alabea ta itun ziran eŕiko danak.

Mendi, zelai ta bastaŕ guztietara zabaldu zan Bakaldunaren alabea gaixorik zala. Elandi Artzaiñak, be, mendi-bastaŕean egonaŕen jakin eban. Eta au, be, beste askoren antzera, itun zan. Eta, (au txaŕago) ezer ezin egin......

Egun batez, Bakaldunaren alabea gomutan, aruntz-onuntz ebilan eta artaldean ardi bat galdua zala artu eban. Zer egin orain? Ardi guztiak txabolan sartu ta gabaren erdian, bere ardigalduaren-bila, urten zan.

Gabedi ostean, ordu batak inguruan, mendi-bizkaŕean zeaŕ eta zapaŕada ikaragaŕia entzun eban. Begiratu ta begiratu eginaŕen, ilun zan eta ezeban ezer ikusten. Ba-dator auŕera ta zapaŕada aundiagoa. Ikaratu zan eta ondoan eban zugatz luze batera igon eban...

Elandi gañera orduko aize zurrunbilo batean, oŕdatoz sorgiñak sorgiñen gaiñean. Danen-erdian, idaztia galtzapean ekaŕan Sorgin-Nagusia. Elandi artzaiña egoan zugatz-pean geratu ziran gañera! Elandi'ren ikarea!

Sorgin guztiak bereala agurtu eben Sorgin-Nagusia.

Alki goŕi bat ekaŕi eutsen eta jaŕi zan Nagusia. Danak musu emon eutsen idaztiari ta bereala asi zan Akelaŕe edo Sorgiñen batzaŕa.

Asi zan ba bere aginduak emoten Sorgin Nagusia:

"Zuek, Katero ta Amala, olako ta olakoari, onako ta alako kaltea! Zuek, Niñika ta Katalin, olako ta alako etxean olako ta alakoak galdu.

Eta Katero, Amala, Niñika ta Katalin juan ziran beingoan euren itxuzki-kirtenetan bakotxa bere bidetik.

"Eta zuek, bete dozuez nire esanak?"- dirautse beste sorgiñei diadaŕ gaŕatza eginda.

Eta guztiak luŕeraño buruak makurtuta "bai Nagusia, egin doguz-" erantzun eutsen.

-"Ondo da. Zuaz orain eta egun batzuetan atseden egizue".

Beingo-beingoan sakabanatu zan gau aretako Akelaŕe. Luŕeragiño buruak makurtuta gurtu eben euren nagusia ta [illegible], be, mun egin eutson. Eta gero odeietan-baŕura sartu zan Sorgin-Nagusia ta bereala eskutatu zan...

Arteon zugatz-gaiñean alderdi guztietara begira lauoŕitan egon zan Elandi Sorgin Nagusia [illegible] aundiagoan uŕintzen ikusi ebanean, nasaitu zan apur bat beiñik. Ordurarte sorgiñak ez ebela ikusita, ez ete-zan gero ausartuago egin?

Apurka-apurka ba-joazan sorgin deabruak. Bakaŕik bi, gelditu ziran zugatz-pean. Eta ara oŕ asi ziran biak baŕiketan asi:

"Y! Ba-i-dakin, egiz be, [illegible] alabea gaixorik dagonik?"

-"Jakin ez?... Ak ez ebenan euki gaixotu?"

-"Neuk gaixotu nabunan, bai. Ez don, baña beingoan osatuko. Etxean bertan yaukon sendagaia gañera!" areiy

-"Zer egin beaŕ leukena ba?

-[illegible] etxe-auŕean ba-dun estalitako osiñ bat. Osiñ aretan ba-don zapo bat; eta zapo aregaz egindako saldea artzea naiko litzaken gaixoa osatzeko."

-"Ori naiko! Ba-yon orduan ilarteko gaixoa...!"

Laster zan egun-sentia. Oilar batek, an uŕiñetik egin eban "kukuŕuku". Eta Elandi konturatu be egiteke, eskutata ziran azkenengo bi sorgiñak...

Eguna zabaldu zanean, zugatz-gañetik jatsi zan gure Elandi eta [illegible], atzera begiratzen ebanaŕen, azkar uŕindu zan. Azkaŕ egin eban [illegible] jauregiruntz.

Ibili ta ibili eldu zan azkenean. Kalera zanean [illegible] alabea azkenetan zala entzuten eban. Iñori begiratzeke Jauregira dua baña gure artzaiña.

Gudari asko agiri ziran an eta bateri "[illegible] ikusi ete-eikean" galdetu eutson Elande'k.

"Eŕegea ikusi? Gaur goizean ba-yok beste zeregiñik, alabea il-agiñean yaukok eta".

-"Oŕixe dala-ta ikusi gura yonat ba. Azkenetan dan alaba ori neuk osatuko yonat."

-"Gizona, burutik egindaro ala? Inguruetako osagileak ezin osatu izan yoek ta...

"-Eta zer? Areik egin ezin dabena nik egin daiket".

-"Jagoz ba. Ba-nua Bekaldunan-bila."

Juan zan gudarioi arin-aringa ta negaŕez eriola berialaxe etoŕi zan Bekaldun

-"Agur Bekaldun Jauna! Oraindiño bizi al da zure alabea?

-"Bizi da, bai, baña azkenetan dago".

-"Ez uste izan Bekaldun Jauna. Nik esandakoa egiten ba-dozu ez da ilgo da zure alabea".

-"Igundikoak egin dodaz baña danak alpeŕik izan yataz. Baña oindiño be edozer egingo neuke. Esan, esan zer egin beaŕ neukean".

-"Jauregi-auŕeko otzara-estalia zabaldu beaŕ dozu beingoan.

-Jauregi auŕeko otzara estalia?

-Beingo-beingoan, Bekaldun Jauna, zure alabea galtzerik nai ez ba-dozu.

Bekaldunea, artzaina ta gudariak ba-doaz iutika. Uŕatu eben otzara-estalia ta Elande'k eta idoro eben bertan zapo-zakaŕa. Elandek

"Ona emen zuk beaŕ genduana ber-bera. Zapo-onegaz egindako saldea artu bear dau zure alabeak irua egunen buruan. Eta iru egun oŕein buruan etoŕiko naz zer baŕi dan jakitera ta egiz baŕi onak emongo dautazuez."

Ba-da-ezpadan, be, egin eben Elandi'k esandakoa iru-egunetan eta irugaŕen egunerako osatu zan, ziatz osatu, be, Bekaldunen alabea.

Ondo ekiazan baŕiak jakitera, eldu zan irugaŕen egunean Elande, be.

Egundoko begi argia artu eban Bekaldunzak. Beronen gudariak bialdu eutsozan bide-erdira. Amaika burdi edeŕ ba-zan an. Éŕege Jauna ta bere alabea Jauregi'ko atean ziran Elandi'ren zain.

Biok eskuetatik artuta jantoki aundi batera eruan eben, eta biaramonera arte iraun eban bazkaria egin eben an.

Eta irabazi be irabazi ba-ebala-ta Éŕegea'ren alabea Elandi'rekin ezkondu zan eta zorionez gañezka Jainkoak daki zenbat urtean bizi izan ziran.

VIII Éŕegiña baŕez.

Beste bein, gaixorik zan Bekaldunen alabea ta iñok ezin osatu eikean. Osagile, azti ta sorgin osatu nairik urduri ebiltzan; alpeŕik baña. Neskatila a osatu eikean osakairik ez zan. Eta egunean baño egunean makalago, egundo baŕerik egiteke, beti ilundun, ilbirako bidean zan.

Zer egin jakiteke iŕipaŕe eragiten eutsonari emaztegai bere alabea emongo eutsola aitzen emon eban Bekaldunzak.

Etxe koskor baten bizi ziran iru anai. Bakalduna'ren eskiña jakiñik. Erregearen alaba gaixo ikusi bear ebela ta mundik edo andik barerik eragiten eutsoen azteru egin bear ebela erregeak euren kolkorako.

Sagar-gori-goriz betetako otzara bat artu ta ba-dua zarena. Sorgin-zulo batera jausitako atso zar bat (sorgiña ausago) zulotik urten ezinda ikusi eban bidean. Laguntza-eske garasika asi zan atsoa. Jaramonik, be, egiteke aurera dua gure mutilak Bakaldun'ren Jauregi'ra zan. Eruan eben gaixoaren aurrera. Gaixoak begiratu eutsozan sagar politei ta beingoan esku biekin bastartu ebazan eta iñoz baño itunago lotu zan.

Bigaren anaiak lore polit-polit batzuk batu ta ba-daruaz Jauregi'ra. Besteak legez Sorgin-zulo ber-bertan ikusi eban onek, be, atsoa. Zarenak baño jaramon geiagorik egiteke aurera. Jauregi'ra zanean eskiñi eutsozan geixoari lore politak, eta zer ziranik, be, ikusteke, bastartu ebazan eskuagaz Eregiña gazteak.

Ezetarikorik, be, eskuetan edo aldean artzeke dua gero, anai gazteena Sorgin-zulotik laguntza-eske egoan atsoa ikusi eban eta beingoan atara eban andik.

Pozaren-pozez asi zan barriketan atsoa orduan:

-"Atara nozulako zer sari emon daikezut orain zuri?

Aberasterik nai dozu?

-Nai ez ostera? Oretarakoxe asmoz urten naz etxetik; Bakaldun'ren alabeagaz ezkondu ari irribare bat eragitekotan nua.

-Eutsi, ba, bildots baltz au. Eruaizu zeurekin eta zeurekin izan beti, ezeren-truk ez emon bein, be."

Besoetan bildotsa artu ta ba-dua, ba, mutil gaztea. Gaberako Bakalduna'ren eriko arrastegi batera eldu zan. Bazkaria-eskatu eben. Ez ebela tokirik eta Abade Jauna'ren etxean izango ebala ta araxe juateko erantzun eutsen. Eta lengo zanean ba-dua Abadearen etxeruntz; abadearen otseñak ondo artu eban; iñaurkia ta jatekoa ba-ebela ta bildotsa an beian itxiko ebela, mutilari gela bat emongo eutsola. Mutilak ezetz, bildotsa aldamenetan euki gura ebala. Ikaratu zan abadea, baña gure mutilak ber eutsi. Azkenean zororen bat zala danak etsita, juan ziran bakoitxa bere gelara; mutil gaztea bildotsa besuetan artuta juan zan.

Goiz-aldea zan eta berarizko bildots aren barri jakin gura urduri zan abade jauna. Kisket-zulotik begiratu eban lenengo, baña ezin ezer ikuso eitean.

Polito-polito zaratarik egiteke sartu zan orduan gelan. Bildotsa besoetan artuta lo egoan ederto mutila. Belari batetik bildotsari eldu eutson abadeak eta "beka" asi zan bildotsa; esnatu zan mutila, ta abadea iges egin nairik lari... Ez alperik! Ezelan, be, ezin itxi bildotsaren belaria!....

"Aŕen zatoz!", diadarka ta gaŕasika asi zan orduan.

Diadaŕaren-diadaŕez esnatu ta arin-aringa, ule danak aŕo-aŕo eginda, aŕapataka jantzi daben soñeko zulodun zaŕagaz dator otseña. Eta bere nagusiari lagundu beaŕez, bildotsaren beste belaŕiari eldu eutson eta ezin laga geiago. Mutila bildotsari tiraka ta besteak be ari elduta, irurak jira-biraka landara juan ziran. Baratzean, iraizean, bere tayua ikusiaz lotsatuta, azaburu zabal-zabal bat artu eban abadearen otseñak eta... soñeko zulua estaltzeko atze-aldean ipiñi eban. Eta zaŕapastaka eŕian-zeaŕ Jauregi-alderuntz duaz.

Eta, oŕa oŕ, azea ikusirik eta jan nairik bide-bastaŕean ziran iru auntz yatorkoez. Eta aza-trukutari ikutu eutsonean, beroni josita geratu ziran eta otseiña, abadea, bildotsa, mutikoa ta auntzok ijutika abiatu ziran gero.

Uŕintxoago, orduko jagita, ate ondoan egoan okiña ta "zatoz, aŕen eta askatu gagizuz" diadar egin eutson.

Ba-dua okiña, ta au, be, eurai lotuta, geratu zan.

Sutegian lanean jardunan eŕementari bat ikusi eben eta txilioka (gaŕasika) "gizon sendoa zara-ta, ta zatoz gu banantzera" dei egin eutsen. Arin-aringa ba-dua eŕementaria, eta eurai lotuta geratu zan a be.

Uŕiñago euren itxuzkiak eskuetan artuta ate-auŕean txutxu-putxu egozan andrazko bi.

Bata-bestian onduan, danak piluan etozan eta gizataldea ikusi ebenean, baŕe-ta-baŕe asi ziran andrazko biak. "Baŕez egoteke gu banantzera ba'zen toze obeto, egingo zenukie-" esan eutsen abade-otseñak. -"Banantzera? Ba-gatoz, ba-gatoz" esan eta euron itzuzkiekin abere ta jendezko soko luzea jo ta jo azi ziran.... Ai baña! Itxuzkiak lenengo zapladan aldrakoei eraztuta geratu ziran eta itxuzkiei.

Bide oker-une baten txakuŕa eskutik euken itsu bat zan. Gure dantza -soka bizia ondotik igarotekoan zaunka ta zaunka asi zan txakuŕa, ta andrazkuei aginka. Eurei josita txakuŕa, ta itsua txakuŕari eraŕita geratu ziran.

Eta zuŕunbiloka edo jira-biraka ba-duaz danok geroago ta Eŕegearen Jauregirago.

Lorik ezin egin eta beti baizen itun lentxoago oetik jagita Jauregiko leio aundi baten erdi-jaŕita egoan Bitaldazen alaba eŕukaŕia...

Mutil gaztea, bildotsa, abadea, abade-otseiña, aza-trukuta, auntzak, okiña, eŕementaria, andrazko biak, txakuŕa ta itsua alkaŕi josita dantza -soka ikusgaŕiau ikusi ebazanean baŕe ta baŕe asi zan Eŕegiña, gazte gaixoa. Zoro baten-antzera ixiltzeka algara ta algara egiten eban.

Aŕapaladan etoŕi zan Bitaldea ta aspaldian lenengoz baŕez bere alabea ikusi ebanean poz-pozik jarri zan. Baña baŕe ta baŕe ez zala aspertzen ikusi ebanean, baŕiro bildurtu egin zan. Bere Jauregi-auŕean ebiltzan dotze

Baita laister bildurtu be baña, baria ta baŕe ez zala aspertuten ikusi ebanean

~~areik bere~~ alabea zoratu egingo ~~ebela-ta~~ entzule-ta, an ebiltzako asaŕe-asaŕe egin zan.

Guztiak ilteko agindu ebaŕ eta aiztoakin ba-yoya-zan arin-aringa, gudariak.

Orduan mutil gaztea bat-batera gelditu egin zan eta beronen atzetik arin-aringa etoŕzanak ~~austeak~~-gora bata-bestearen gañera jausi ziran. Orduan baña, ~~azkatutaz~~ ... ~~dauzak~~ ... baña Eta gero -"naikoa dozu? esan eutson ... alabeari, diadar aundia egiñik.

"Beka ~~edo uŕuzaka~~ asi zan bildotsa, be. ta beingoan baretu egin yakon Eŕegiña gazteari, ~~be,~~ baŕe zoroa.

Bein betiko osatu ~~zan~~ eta ~~maitegaŕi egin zan~~....

Ilabete baño len, Eŕegeak lengo esanebanez, mutil gaztearekin ezkondu zan. Eŕegiña-ta ume askoren gurago izan ziran.

## IX. Azeria ta ontziburua.

Ba-zan bein azeri zaŕ bat. Auzoko olo guztiak jaten ebazalako, txakuŕak begiztatuta ei-euken.

Beti zuloan sartuta egon-ezkero, baraunik egon beaŕ izaten ebaŕ ~~zan~~, baña, ta il edo bizi, gabaz ta tataŕatzaŕez egiten ebazan urtenaldi batzuk.

Baña aretara bizi izatea egokia ez zala ta euzkaldun etxe askotako semeak juaten ziranez, Ameriketa'ra juatea ~~zala~~ erabagi eban. Bere buruari etsita bizi ~~zan~~ baltzan.

Esan eta egin. Ba-dua azkaŕ-azkaŕ ontziburuarengana ta onantxe asi yakon:

- Agur Ontziburu Jauna. Ontzi oŕetan niretzako lekurik ba-al-dozu? Ameriketa'ra juan ~~para~~ neuke nik, be, ta...

- Euki, ba-daukat lekua, azeri jauna: goratia ~~garesti~~, ~~karutxu~~ izango ete -yatzun bilduŕ naz baña, ogei ontzako uŕe beaŕ dodaz-ta.

- Ondo, da.. Ontziburu Jauna, ori. Semeiko bakaŕ bat bere, ~~be,~~ nik neurerik ez dot izan. Eruan beaŕ nozu baña. Txakuŕ guztiak auŕean erabili nabe egunotan, be, ta ez da geiago niretzako bizibiderik. Eruan nagizu zeurekin eta ontzian naitenean ~~munduan~~ diranik iru egi aundienak esango dautzudazala itz ~~ed~~ ~~berba~~ emoten dautzut.

Iru egi aundienon jakin-miñez ontziburuak azeriari ontzira-sartzen laga eutson; jauzi batean ~~sartzen~~ igon zan azeria ta ~~ba-duaz~~ bereala urten eben. Ibili ta ibili, urez-ur, itxasoz-itxaso ba-juazan auŕera ta ontziburua ~~...~~ egi aundien zain beti! ~~ta~~ Azeriak mistik be ez ~~esaten~~ barik!

Alako batez oŕaitiño, azeria ta ontziburua ontziko leio batetik begira ~~...~~ Axe bai ba-zala gau zoragaŕia! Axe bai ilargi-zuri edaŕa! Bat-batera ontziburuak - "Au dok izateko gaua, azeri? Olako ilargi-zuri ederik...!"

-Bai, bai, gauza ederá da, Ontziburu Jauna, itargi zuria! Eguzkia edarágo baña (Lenen-egia).

Baña zan auréago. Azeria'r bere buruz ezer ez eutsola esaten eta asaŕe zan ontziburua.

-Itxasoz onako gau-girotan ibiltea el al-yak atzegin, azeri?

-Bai, Ontziburu Jauna, pozgaŕia da onako gau edaŕa! (Atan, be, baña eguna nagusi da! (Bigaŕen egia).

Juan eta juan, beti juan eta Ontziburuak bere kolkorako auxe iñoan: "Jakin izan ba'neu jakin, ez naguan nirekin artuko, beti beti ixilik yagok-eta!". Ameriketa'ra takoan azeri guzurti biuŕia uretara botateko asmoa artu eban. Uretara botatea damu be, ba-eban eta Ameriketa'ko luŕetatik uŕean ziranean, auxe esan eutson azeriari:

-Istik, be, ez dau tak esaten, azeri. Begiratu egiok itxasoari. Zeñen edaŕa, zeñen barea gaur legoŕetik oŕen uŕean!".

-Bai, Ontziburu-Jauna, gauza edaŕa da itxasoa! Beti le, baña luŕa (legoŕa) nagusi ~~bedi beti be~~".

Eta irugaŕen egi ori esan ostean ~~[illegible]~~ jauzi ~~egin eta ba-dua azeria luŕera~~ ta joan zan luŕera.

Oŕa oŕ Ameriketa'ra Bankako edo Aldudeko euzkeldun azeria ~~azeria~~ zelan juan zan. Aŕezkero Amerikar eginda zar-zar beti oloz afeta an bizi ei-da. Egunen batez, bere azken aparian Judutar ibiltariak jango dabela esaten ei-dabe.

X Zazpi lapuŕak.

(Bein batez) ba-ei-ziran anai bi. Ama il-baŕia yakoen. Eta egun batez dirua egin nai ebela-ta etxetik urten egin zan anai zaŕena.

~~Bere~~ Anai gaztea etxean lagata, ogi aundi bat eta makilea eskuetan arturik, aldendu zan eŕitik:

"Ago i emen -esan eutson gazteari urteterakoan-eta gauza guztiak ondo urtengo ba-leuskidak ondo izango gintzakezak auŕerantzean."

Ibili ta ibili, beti ibili, lau edo bost egunen buruan baso aundi -aundi bat idoro eban. Bere ogi astunetik ~~orain~~ kuskuŕa geratzen yakon, orain eta artean diru gitxi irabazi al izan eban.

Eta oŕa basotik aŕastaka etoŕan atso zar-zaŕ, aŕgal, okeŕ, eŕukaŕi bat ikusi eban.

-"~~Eskupeko edo~~ Ukaŕtxo bat, aŕen, Jaun gaztea, Jaungoikoa'ren izenez!"

-A eŕukaŕia!. Zeu baizen bear'suari eskatzen dautsozu. Gure ama

zanak - Jaungoikoa'k Berakin izan bedi- gure apuretik, be eskekoari beti emon bear yakola irakatsi ta esan oi euskun... Ogi-kuskuŕ au eutsi, ba, ta, gitxi danaren azketsi. Gogoŕa izango da, baña ez daukat besterik, ene eŕukaŕia!

-Mila eskaŕ Jaun gaztea. Jainkoak orain-ate le begiratu dautso zure biotz onari... Orela Nora zuaz baña oreła?

-Neuk be, ez dakit... Al ba'neu, dirua irabaztera. Dirua-izeneko neskatila ori nun dan esateko ez dozu jakingo? Gautzatxo bi pozik esango neuskioz, ba.

-Eta neskatila edo andratxo ori neuba nintz? Jaungoikoak saritzeke on-egite bat, be, ez dau isten. Ona emen zuk egin bear dozuna: Baso sakon onetan ba-da Jauregi edaŕ bat; egunez pelotan eta gauez lapuŕetan egiten daben zazpi anai bizi dira jauregi edeŕ oŕetan. Zoaz Jauregiruntz. Ara orduko baña lertxun zuzen-zuzen bat idoroko dozu, ta, aren gañera igon zaitez. Eta orduan eŕiko pelota-leku aundia zeure auŕean ikusiko dozu. ondo begiratu egizu: eta zazpi pelotariak pelotan ba'liardue, nasai -nasai zuaz ta jauregian sartu zaite. An amaika gauza edeŕ ikusiko dozu; nai dozun guztia aŕtu egizu, beaŕ diran leŕz erabili baña (ondo baña ... baña). Gauza areik dan-danak ostutakoak dira, ta, aren jaubeak il ziran: zazpi anai oneik il ebezan basoan..."

Berba edo itz oneik esan-ezkero, eskutatu zan atso zaŕa eta mutil gazteak agertu ta eskutatu zana, Dirua-izeneko andratxoa ber-bera izan zala uste izan eban.

Juan zan, ba, basoan-zear eta ordu erdi baño len Jauregi ikusgaŕi baten auŕean zan eta aitatuko lertxun-luzea ikusirik, igon zan aren gaiñera.

Atsoak esan eutsonez begiratu eban uŕiñera ta bat... bi,.... iru... lau.... zazpi lapuŕak pelotan ziardu. Aren poza orduan!

Jatsi zan beingoan eta sartu zan jauregi ederera. Zaldi toki zabalean zazpi beoŕ beta baño bestea edaŕaguak ikusi ebazan.

Zenbat eta Baŕurago sartu ta ainbat eta gauza ikasgaŕi-goak ikusten ebazan auŕean; uŕe, zidaŕ ta aŕi edeŕak begira euretatik begiak kendu eziñik luzaro egon zan.

Azkar ibili beaŕ izango ebala gomutaratuta, uŕe, zidaŕ ta diamantez eskutadaka amaŕ zaku edo bete ta, bi beoŕ politenen gaiñera eruan ebazan amar zakuok; iñok ezagutu ez egizan beoŕak anka-beŕiak zapiz batuta, azkaŕ aldendu zan.

Bost edo sei egunen buruan zaldi areik etxetazean anai gaztea bai aŕitu zala!

Anai zaŕak yazotako guztiaren baŕi emon eutsonean, anai gazteak, be, diru-bila juatea gura izan eban.